

21 AGENDA

2016ko aldizkaria



Vitoria-Gasteiz
garapen jasangarrirantz



Aurkibidea

Sarrera.....	3
Vitoria-Gasteizko iraunkortasun adierazleen sistema	6
Erabilieremua: diagnostiko sektoriala	7
HIRIKO KUTSADURA.....	8
ZIRKULAZIOA ETA GARRAIOA.....	13
URA	21
ENERGIA.....	27
INDUSTRIA.....	33
HONDAKINAK	39
HIRIGINTZA ETA LURRALDEA.....	43
NATURA ETA BIODIBERTSITATEA.....	51
INGURUMEN OSASUNA ETA ARRISKUAK.....	57
INFORMAZIOA, HEZKUNTZA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA	63
INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA.....	69
Ingurumen Kontseilu Sektoriala	79

Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala
Zuzendaritza teknikoa: Udaleko Ingurumen Arloa
Diseinu, maketazioa eta marrazkiak: Komunikazio Bulegoa

SARRERA

1998an udalbatzak, aho batez, udalerriko 21 Agendaren prozesua bultzatzea erabaki zuenez geroztik, Gasteizko Udalak bere egina du iraunkortasunaren alorreko zenbait adierazle urtez urte berrikusi eta emaitzei zabalkundea emateko konpromisoa.

Harrezkero, Ingurumenaren Mundu Egunarekin bat eginik, ekainean, "21 Tokiko Agendaren adierazleen buletina. Gasteiz garapen iraungarrirantz" argitaratzen du Gasteizko Udalak urtero. Bertan bi informazio-mota ematen zaie herritarrei: batetik, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren esparruko egungo egoeraren eta izandako bilakaeraren berri ematen zaie, iraunkortasunari buruzko zenbait adierazleren bitartez, eta, bestetik, udalerrian iraunkortasunaren alorrean egin diren jarduera nabarmenen berri; horien arteko gehienak aldiari-aldiari indarrean dagoen tokiko ekintza-planean daude jasota, edo horren baitan planifikatu dira. Izan ere, tokiko ekintza-plana Tokiko 21 Agendaren funtsezko elementua da, Gasteizko Udalak iraunkortasunarekin duen konpromisoaren eta estrategiaren isla.

2010ean onetsi zen eta bere baitan 227 ekintza eta 304 jarduera desberdin hartzen zituen Gasteizko 21 Agendaren 2. Tokiko Ekintzarako Planaren (2010-2014) azken ebaluazioak ondorioztatu du ezartze-maila globala % 67koa izan dela. Hasi ez diren 12 ekintza identifikatu dira, eta martxan jartzeko hasierako fasean dauden 25. Gainerakoe-tatik, 45 oso aurreratuta daude, eta beste 146, berriz, dagoeneko bukatuta daude, edo bukatzetik oso gertu. Ondorio gisa, Gasteizko 21 Agendaren Tokiko Ekintzarako III. Plana izango dena lantzeko prozesuari ekingo zaio 2016an.

Mugikortasunari dagokionez, Mugikortasun Iraunkorren Europako Astea izan zen irailaren 17tik 24ra, "Do the right mix" lema-eraren pean; hirietan barrena mugitzeko bitarteko-koen nahasketa egokia egiteko gonbita zuzena, herritarrei zuzendua, bereziki joan-eto-rietan modu aktiboak eta garraio publikoa bultzatzera bideratua.

Zentzu horretan, nabarmendu beharra dago 2015ean berriro hautsi zirela errekor guztiak, garraio publikoa erabili zuten bidaiarien kopuruari dagokionez. Izan ere, 13,7 milioi bidaiari izan ziren hiriko autobusetan, eta, horri tranbia erabili zuten bidaiarien kopurua —7,7 milioi— gehituz gero, garraio publikoaren erabiltzaileak ia 21,5 milioi izan zirela esan liteke, hau da, % 5etik gorako igoera, aurreko urtearen aldean.

Horren haritik, haurrek eskoletara egiten dituzten joan-eto-rietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko lan egiten jarraitu dute 2015 urte osoan Gasteizko 21 Eskola Agendan parte hartzen duten ikastetxeek, helburutzat harturik espazio publikoan eta hiriarren eta haurren arteko harremani buruzko oharmen kolektiboan esku hartzea, baita haurrei hurbileneko ingurunea deskubritzen eta autonomia mugatzen dieten oztupoak gainditzeko lagunduko dien hezkuntza-ereduan ere.

Hiriarteko garraioaren arloan, Gasteizko autobus-geltoki berria abian jartzea izan zen gertakariarik nabarmengarriena, hartara Herrandarren kaleko aurreko geltokiaren behin-behinekotasuna bukatutzat eman baitzen. Autobus-geltoki berriaren eraikinak eta inguruneak 26.650 m²ko azalera hartzen dute, eta energia-eraginkortasunaren eta energia

berriztagarrien alorreko neurriak kontuan harturik eraiki da, aprobetxamendu geotermikorako sistema batekin eta autokontsumorako panel fotovoltaikoekin.

Uraren arloan, Futura Planeko jarduerak emaitzak ematen jarraitzen dute; izan ere, etxeetako kontsumoa biztanleko eta eguneko 106 litrotik behera jaitsi da dagoeneko, nahiz eta ur-eskari osoa handitu egin den, eguraldiaren gorabeheren eta jarduera ekologikoaren susperraldiaren ondorioz.

Energiaren arloan, argiteria publikoan eta udal instalazioetan energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna sustatzeko jarduerak abian jartzen jarraitu da.

Bestalde, nabarmendu beharra dago CO₂rik gabeko hiri adimentsuak sortzeko europar estrategia garatu nahi duen SmartEnCity proiektua esleitu zitzaioela hiriarri. Gasteizen kasuan, Koroatzearen auzoan gauzatuko da proiektua, zeinek europar finantzaketa baitu. 1.313 etxebizitza energetikoki birgaituko dira, erosoagoak izan daitezten, biomasari baliatuko duen berokuntza-sistema eraginkorra instalatuko da, baita kaleak eta plaza berri ere, auzoa erakargarriagoa izan dadin, eta, aldi berean, bertako bizilagunen bizi-kalitatea hobetuko da.

Gasteiztarrak etxeko kontsumoa gutxitzeak duen garrantziaz sentsibilizatzea da Etxe Berdeak programaren helburua, eta herritarren eguneroko ohiturak aldatzea, hirian ingurumen-inpaktua murriztuko duten etxebizitza eraginkorrak eta ekologikoak lortu daitezten. Ekimen honek ingurumenaren ikuspegitik zein ekonomikotik etxebizitza eraginkorrak eta iraunkorrak lortzeko laguntza pertsonalizatua eskaintzen die familiei.

Energiaren eta klima-aldaketaren esparruan, nabarmentzekoa da "Compact of Mayors" nazioarteko ekimenari atxiki zaiola hiria. Hauxe da alkateen nazioarteko itun horren oinarria: tokiko gobernuek klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko borondatezko konpromisoak hartzea, egindako aurrerakuntzei eta lortutako emaitzei buruzko informazioa ematea, eta plataforma ezagun eta legitimatuen bitartez informazio hori eskuragarri jartzea, esperientzia-trukea ahalbidetze aldera.

Klima-aldaketaren arloko betebeharrak betetzen dituela erakusten duen zigiluaren bitartez, Gasteizko Udalak azken urteetan egindako lana aitortu du Compact of Mayors itunak, bai berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteari dagokionez, bai klima-aldaketaren ondorioetara eta muturreko eguraldi-gertakarietara egokitzeari dagokionez.

Hondakinak sortzeari dagokionez, batez ere prebentzioa jorratu da, eta berrerabilpena sustatu. Horri esker, eguneko eta biztanleko kilogramo batetik beherakoa da gaur egun etxeetan eta merkataritza-establezimenduetan sortzen diren hondakinaren tasa.

Hiri-hondakinaren kudeaketaren arloan, Arabako lurralde historiko osoari eragiten dion gertakaria garrantzitsu bat izan zen 2015ean. Ekainaz geroztik, Arabako koadriletatik datozen hiri-hondakinak Jundizko tratamendu mekaniko-biologikorako lantegian tratatzen dira, Gasteizen sortutakoekin batera. Horrela, lantegi hori abian jartzearekin lortu nahi zen helburua lortu da, hau da, lurralde historikoan sortutako hiri-hondakin primario guztiak tratatzea, eta zuzenean Gardelegiko zabortegira bota zitezela galaraztea, indarrean dagoen legedia betetze aldera —debekatu egiten baitu tratatu gabeko hondakinak botatzea—.

Gainera, bi gertakari nabarmen gertatu dira: alde batetik, kaleak garbitu eta hiriko hondakin solidoak biltzeko kontratu berria martxan jarri da, eta, bestetik, Gardelegiko zabortegia handitzeko obrak egin dira, araudira egokitu eta bizitza erabilgarria luzatzeko.

Natura zaindu eta biodibertsitatea babesteari dagokionez, nabarmentzekoa da 2015ean onartu zela, partaidetza-prozesu baten ondoren, Gasteizko udalerriko Biodibertsitatea Kontserbatzeko Estrategia, zeinen helburu nagusia baita hamar urteko epean biodiber-

tsitatearen galera geldiarazteko behar diren neurriak ezartzea, eta udalerriko habitat zein espezieen kontserbazio maila egokia lortzea, horiek gizartearentzat dituzten balio eta funtzioen aitorpena sustatuz.

Gasteizko hiri-azpiegitura berdea ezartzearen esparruan, 2015ean proiektu bat burutu zen Lakuabizkarra auzoan, berdeguneetan eta hutsik dauden orubeetan, hiri-paisaia aldatu eta naturaren onurak hiri barruan baliatzeko, espazio horien dibertsitate biologikoa handituz, leku horien arteko konektibitate ekologiko eta espaziala hobetuz eta lurzati horien balioa handituz.

Gizarte-zerbitzuen esparruan, hazten jarraitu du adinekoentzako zentro soziokulturalen sareak, Lakua-Arriagako zentro berria ireki delarik, eta, hortaz, 15 dira dagoeneko hiri-eremuetan dauden zentroak.

Azkenik, arlo sozioekonomikoan, Itun Berdea ekimena lantzen jarraitu zen, iraunkortasunaren aldagaia jarduera ekonomikoan integratzen laguntzeko, enpresen lehiakortasuna areagotzen lagundu baitezake horrek. Dagoeneko 823 enpresa atxiki zaizkio itunari. 24 praktika on identifikatu ziren 2015ean, hainbat alorretan —energia-eraginkortasuna, mugikortasun iraunkorra, ekodiseinua, materialak berrerabiltzea—; guztiek ere, garapen ekonomikoa hobetzen lagunduko dute, baliabideen erabilera eta ingurumen-eragina gutxituz. Gainera, beste 23 enpresa gehitu dira hornitzaile berdeen zerrendan.

VITORIA-GAZTEIZKO IRAUNKORTASUN ADIERAZLEEN SISTEMA

Udalbatzarrak, 2004ko maiatzaren 26an bildurik, aho batez onartu zuen Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21 prozesuko iraunkortasun adierazleen sistemaren berrikuste eta hedatzea. Onarpen honen ondorioz, hasieran finkatutako 21 adierazle multzoa 35 adierazle izatera igaro zen.

HIRIKO KUTSADURA

1. Airearen kalitate "hala-moduzkoa", "txarra" edo "oso txarra" erregistratzen den egun kopurua
2. Urtean biztanleriari emandako ozonorako informazio-atalasea gainditzen den aldien kopurua
3. Eguneko 24 orduetan kalitate-helburu gisa desiragarri litzatekeen zarata-maila baino handiagoa jasaten duten kaleetan bizi den biztanleria
4. Gauean kalitate-helburu gisa desiragarri litzatekeen zarata-maila baino handiagoa jasaten duten kaleetan bizi den biztanleria

ZIRKULAZIOA ETA GARRAIOA

5. Tokiko mugikortasuna eta bidaiarien garraioa
 - 5a. Biztanle bakoitzak egunero egiten dituen bidaia kopuruaren batez bestekoa
 - 5b. Biztanle bakoitzak egunean egiten duen bide-luzeraren batez bestekoa
 - 5c. Biztanle bakoitzak egunean egiten dituen bidaien batez besteko iraupena
 - 5d. Bidaia sistematikoak eta ez-sistematikoak ehunekotan
 - 5e. Garraioibide diferenteen erabilera ehunekotan
6. Tranbia eta hiri autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua
7. Trafiko intentsitatea
8. Garraio-azpiegiturera bideratutako azalera

URA

9. Hiriak Zadorra ibaiari ematen dion karga organikoa
10. Ur zikinen arazketa
11. Uraren etxeetako kontsumoa
12. Ur-eskari osoa
13. Ur-eskari osoaren sektore-banaketa
14. Ur edangarriaren banaketa-sarearen errendimendua

ENERGIA

15. Argindar eta gas naturalaren kontsumoa etxeetan
16. Efizientzia energetikoko ziurtagiria lortu duten etxebizitzek kopurua

INDUSTRIA

17. Ingurumenaren kudeaketarako ziurtagiria duten enpresak

HONDAKINAK

18. Etxe eta saltokietako zaborrak biztanle eta eguneko
19. Hiriko hondakin solidoen birziklapena

HIRIGINTZA ETA LURRALDEA

20. Oinarritzko zerbitzueterako eta gune publiko irekieta iristea
21. Lurraren erabilera jasangarria
 - 21a. Lur artifizializatu eta urbanizagarria
 - 21b. Lur abandonatuak eta potentzialki kutsatuak
 - 21c. Lurraren erabilera-intentsitatea
 - 21d. Garapen berrien kokapena
 - 21e. Hiri-azalaren zaharberritzea
 - 21.f. Landa-espazioa eta espazio naturala

NATURA ETA BIODIBERTSITATEA

22. Biodibertsitatearen kontserbazio egoera Vitoria-Gasteizko udalerrian (hegazti ugartasunaren indizea)
23. Nekazaritza ekologikoko teknikak jarraitzen dituzten lursailak
24. Ibaien egoera ekologikoa (BMWP' indizea)

INGURUMEN OSASUNA ETA ARRISKUAK

25. Erretzaileen ehunekoa (ohikoak edo noiz-behinkakoak)
26. Hiri barruko trafiko-istripuen kopurua urteko eta 1.000 ibilgailuko
27. Hiri barruan harrapatutako oinezkoen kopurua urteko eta 10.000 biztanleko

INFORMAZIOA, HEZKUNTZA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

28. Ingurumen informazioari buruzko kontsulta kopurua
 - 28a. Ingurumen informazio edo dokumentazioaren eskuratzeak
 - 28b. Udaleko zerbitzu teknikoari zuzendutako ingurumen kontsulten kopurua
29. Eskola-umeen parte hartzea Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako ingurumen-heziketako jardueretan

INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA

30. Herritarren gogobetetzea tokiko komunitatearekin
31. Garapenerako nazioarteko lankidetzara bideratutako udal aurrekontuaren ehunekoa
32. Garapenerako nazioarteko lankidetzara bideratutako udal aurrekontuko per capita gastua
33. Mendekotasun demografikoko tasa
34. Diru-sarerak bermatzeko errenta jasotzen duten familien ehunekoa
35. Langabezia-tasa

ERABILEREMUA: DIAGNOSTIKO SEKTORIALA



HIRIKO KUTSADURA



JASANGARRITASUNeko HELBURU OROKORRA:

- HIRI INGURUNEKO KUTSAGARRIEN MAILAK BEHERATZEA



AIREAREN KALITATEA

Aire garbia ezinbestekoa da hirritaren eta ekosistemen osasunerako. Horregatik, hain zuzen, funtsezkoa da jasangarritasunerako.

Erabilitako adierazleek hiriko atmosfera-kutsatzaile nagusien balioak aztertzen dituzte, nagusiki garraiotik, industrian erregai fosilak erabiltzetik eta berogailu-sistemetatik datozenak, eta indarrean dagoen araudiak ezarritako arrisku-maila edo atalaseekin alderatzen dituzte. Kontrol hori, gero eta neurketa-estazio gehiago dituen Kutsadura Atmosferikoa Zaindu eta Kontrolatzeko Sare Automatikoaren bitartez egiten da. Anlizatzen diren atmosfera-kutsatzaileak hauek dira: SO_2 , NO_2 , ozonoa eta PM_{10} .


1. Airearen kalitate "hala-moduzkoa", "txarra" edo "oso txarra" erregistratzen den egun kopurua

Datu iturria: Gasteizko Kutsadura Atmosferikoa Zaindu eta Kontrolatzeko Sare Automatikoa. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurte aldia: urtero

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Oso ona:	36 (9,9%)	29 (7,9%)	Dat. gabe	Dat. gabe	20 (5,5%)	29 (7,7%)
Ona:	211 (57,8%)	191 (52,3%)	Dat. gabe	Dat. gabe	235 (64,4%)	223 (60,3%)
Halamoduzk.:	115 (31,5%)	141 (38,6%)	Dat. gabe	Dat. gabe	110 (30,1%)	111 (31,5%)
Txarra:	3 (0,8%)	4 (1,1%)	Dat. gabe	Dat. gabe	0 (0,0%)	2 (0,5%)
Oso txarra:	0	0	Dat. gabe	Dat. gabe	0 (0,0%)	0(0,0%)



2. Urtean biztanleriari emandako ozonorako informazio-atalasea gainditzen den aldien kopurua

Datu iturria: Gasteizko Kutsadura Atmosferikoa Zaindu eta Kontrolatzeko Sare Automatikoa. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurte aldia: urtero

2010	2011	2012	2013	2014	2105
0	0	0	0	0	0

ZARATA-KUTSADURA

Zarataren inpaktuak eragin kaltegarriak izan ditzake gizakiaren osasun eta ongi-zaterako. Gizarte jasagarriak hiriaren funtzio nagusien (etxebizitza, lana eta mugikortasuna) nahasketa eskaini beharko luke, baina hiritarrei nazioartean gomen-dutzen den zarata-maila baino handiagoa jasanarazi gabe.

Ibilgailuek kale eta errepedeetan eta trenak sortzen duten zaratak Gasteizko biztanleengan duen eragina zehaztu nahi du erabilitako adierazleak, ingurumen-hotsaren ebaluazio eta kudeaketari buruzko ekainaren 25eko 2002/49/CE Zuzentarauak definitutako markoaren arabera.

3. Eguneko 24 orduetan kalitate-helburu gisa desiragarri litzatekeen zarata-maila baino handiagoa jasaten duten kaleetan bizi den biztanleria¹

Datu iturria: 2005ko eta 2012eko Gasteizko Zaraten mapak. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: aldakorra

	2005		
Balio-tarteak dB (A)	65-69	70-74	>75
Kale eta errepedeetako zarata pairatzen duten biztanleak	65.298	22.166	935
Trenbideetako zarata pairatzen duten biztanleak	737	37	0
	2013		
Balio-tarteak dB (A)	65-69	70-74	> 75
Kale eta errepedeetako zarata pairatzen duten biztanleak	47.551	19.119	50
Trenbideetako zarata pairatzen duten biztanleak	1.251	405	0

4. Gauean kalitate-helburu gisa desiragarri litzatekeen zarata-maila baino handiagoa jasaten duten kaleetan bizi den biztanleria

Datu iturria: 2003ko eta 2005eko Gasteizko Zaraten mapak. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: aldakorra

	2005		
Balio-tarteak dB (A)	55-59	60-64	>65
Kale eta errepedeetako zarata pairatzen duten biztanleak	61.850	34.2030	1.964
Trenbideetako zarata pairatzen duten biztanleak	1.744	458	0
Aireportuko zarategatik kaltetutako biztanleria	22	0	0
	2013		
Balio-tarteak dB (A)	55-59	60-64	>65
Kale eta errepedeetako zarata pairatzen duten biztanleak	46.191	16.169	340
Trenbideetako zarata pairatzen duten biztanleak	1.892	716	7
Aireportuko zarategatik kaltetutako biztanleria	0	0	0

¹Zuzenketa-neurriak beharko litzuketen zarata-tarteak gorritz nabarmendu dira. Etxe barruko benetako eragina, gutxienez kanpoan dagoen zarata-maila baino 33 dB(A) txikiagoa dela kontsideratzen da.

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

“Compact of mayors” edo Alkateen Itunaren nazioarteko ekimenari atxikitzea

Munduko tokiko agintarien arteko ekimen garrantzitsuen da, berotegi-efektuko gasen emisioa gutxitzeko eta hiriak klima-aldaketaren ondorioetarako prestatzeko, haien erresilientzia hobetuz; gainera, horren eboluzioaren jarraipen publikoa egingo dute. Alkateen Itunak Gasteizen lana aitortu du, hainbat arrazoiengatik: berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioa—komunitate mailako berotegi-efektuko gasen inbentarioak egiteko protokolo globalarekin (GPC) bat datorena—; klima mehatxuen zehaztapena, berotegi-efektuko gasen emisioa gutxitzeko eta klima ahuldadeei aurre egiteko helburuak, eta klima-aldaketa leuntzeko eta horri egokitzeko landu diren planak. 2015ean, Gasteizek “Compact of Mayors” ekimenaren irizpide guztiak bete ditu. Alkateen Itunaren bitartez, atxikitako udalerriek ikusgarritasun handiagoa lortzen dute klima-aldaketari erantzuten dioten liderrak diren aldetik, klima globalari asmo handiko irtenbidea emateko konpromisoa erakutsiz.


“Covenant of Mayors” edo Alkateen Itunari Energia Iraunkorreko Ekin-tza Planaren (EIEP) lehen ebaluazio-txostena aurkeztea

2008an, Gasteizek bat egin zuen “Covenant of Mayors” (Alkateen Ituna) izeneko europar ekimenarekin. Hartutako konpromisoa betez, Udalak energia iraunkorreko ekintza plan bat (EIEP) aurkeztu zion Itunaren Bulegoari 2010ean, Gasteizen Klima Aldaketaren kontra Borrokatzeko Plana (2010-2020) izeneko, zeinean 2020rako berotegi-efektua duten gasen emisioak 2006ko kopuruekiko % 25,7 murrizteko konpromisoa hartu baitzuen. 2015eko azaroan, 2010-2014 aldian planarekin lotuta udalerrian egindako jardueren lehen ebaluazio-txostena aurkeztu zitzaion Itunari.

Iraunkortasunarekin lotutako esperientzien trukea Kanadako hiriekin

Programaren bitartez, lau europar hirik eta lau kanadar hirik hiri politiken eta garapen iraunkorraren alorreko jardunbide onak trukatu zituzten. Gasteizi Edmonton hiria egokitu zitzaion bikotekide gisa; Alberta estatuko hiriburuak 900.000 biztanle ditu, eta azpiegitura berdeen aldeko apustu garrantzitsua egin du. Udalak, Ingu-rugiro Gaietarako Ikastegiak eta Neiker eta Tecnalia ikerkuntza zentroek osatu zuten Gasteizko ordezkariak. Edmontonera joan aurretik, programan sartutako zortzi hirien arteko topaketa batean parte hartu zuten, Toronton. Gasteiz eta Edmon-tonen arteko esperientzia trukean, hiri azpiegitura berdeen politikaz gain, beste alderdi hauek nabarmendu ziren: mugikortasuna, energiaren kudeaketa, uraren kudeaketa eta elikadura estrategia.

ZIRKULAZIOA ETA GARRAIOA



JASANGARRITASUNEN HELBURU OROKORRA:

- MOTORDUN GARRAIOAREN ERABILERA MURRIZTEA
- GARRAIBIDE PUBLIKOEN ERABILERA GEHITZEA



5. Tokiko mugikortasuna eta bidaiarien garraioa

Mugikortasun hazkorrak hirietako ingurumenaren kalitatea, gizarte-ongizatea eta bideragarritasun ekonomikoa mehatxatzen ditu. Horretan eragina dute trafikoaren gehikuntza handiak eta erabiltzen diren garraiatzeko moduen aldaketa erradikalak, izan ere, oinez, bizikletaz edo garraio bide publikoek egiten ziren joan-etorrien ordez gero eta gehiago erabiltzen dira auto partikularrak.

Udaletik joera hori aldatzeko behar diren jarduketak burutu behar dira. Irisgarritasun, garapen ekonomiko eta ingurumeneko helburuen bateragarritasuna izan behar du hiri-garraioko politikaren helburu nagusia.

Hurrengo datuek, 2001ean, 2006an eta 2011n egindako inkestetatik atera direnak, egun Gasteizen dagoen mugikortasun eskemaren nolabaiteko ideia ematen dute.

Datu iturria: hiritarren arteko inkesta

Joera desiragarria: gehitzea garraio bide motorgabeetan, gutxitzea garraio bide motordunetan

Neurtze aldia: lau urtean behin

5a. Biztanle bakoitzak egunero egiten dituen bidaia kopuruen batez bestekoa

	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.	Guztira
2001	2,43	0,05	0,02	0,72	0,01	0,26	-	3,50
2006	1,26	0,08	0,02	0,92	0,01	0,26	0,00	2,55
2011	1,86	0,23	0,02	0,96	0,00	0,36	0,01	3,45
2014	2,04	0,46	0,04	0,89	0,00	0,31	0,01	3,75

2014	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.	Guztira
Beste batzuk	0,88	0,13	0,01	0,33	0,00	0,12	0,00	1,48
Eskola	0,10	0,09	0,00	0,02	0,00	0,05	0,00	0,28
Lana	0,18	0,12	0,01	0,32	0,00	0,07	0,00	0,71
Aisia	0,39	0,09	0,01	0,11	0,00	0,03	0,00	0,63
Erosketak	0,48	0,03	0,00	0,11	0,00	0,04	0,00	0,66
Guztira	2,04	0,46	0,04	0,89	0,00	0,31	0,01	3,75

5b. Biztanle bakoitzak egunean egiten duen bide-luzeraren batez bestekoa (kilometro biztanleko)^{1, 2}

	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.	Batez bes.
2001	2,72	5,65	4,29	9,52	-	-	-	4,35
2006	Ez zen neurtu							
2011	Ez zen neurtu							

5c. Biztanle bakoitzak egunean egiten dituen bidaien batez besteko iraupena (minutu biztanleko)¹

	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.	Batez bes.
2001	20,71	24,74	27,57	19,25	22,50	21,32	-	20,54
2006	21,54	31,31	21,51	23,68	43,33	16,10	-	23,30
2011	24,41	19,17	15,27	18,89	21,95	25,85	28,47	22,62
2014	20,26	18,73	14,97	19,96	15,06	29,12	27,06	20,70

2011	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.	Batez bes.
Beste batzuz	25,02	23,40	13,76	19,25	13,59	30,06	29,11	23,93
Eskola	19,02	14,88	16,15	22,68	10,00	30,63	-	20,10
Lana	15,87	16,13	14,89	21,05	17,50	28,34	20,88	19,54
Aisia	18,47	20,14	17,46	22,03	17,80	30,78	50,81	19,97
Erosketak	14,92	17,24	8,63	16,30	-	23,93	11,24	15,71
Guztira	20,26	18,73	14,97	19,96	15,06	29,12	27,06	20,70

5d. Bidaia sistematikoak eta ez-sistematikoak ehunekotan


%	2001	2006	2011	2014
Bidaia sistematikoak ³	18,28	36,24	36,49	26,22
Bidaia ez sistematikoak	81,72	63,76	63,51	73,78
Guztira	100,00	100,00	100,00	100,00

1- Batez bestekoak balio haztatuak dira, bidaiaren arrazoiari emandako pisuaren arabera kalkulatuak.

2- 2006an eta 2011n egindako inkestek ez zuen kontuan hartu azpiadierazle bat eta, beraz, ez dago horri buruzko daturik.

3- Desplazamendu sistematikoak: lana, lan kudeaketak, ikasketak

5e. Garraibide diferenteen erabilera ehunetotan




	Oinez	Bizikletaz	Motoz	Auto pribatuz	Taxiz	G. kolek.	Beste batz.
2002	55,00	dat. gabe	dat. gabe	31,00	dat. gabe	8,00	6,00
2006	49,62	3,27	0,86	36,04	0,25	9,79	0,17
2011	53,57	6,88	0,55	28,42	0,10	10,04	0,35
2014	54,36	12,27	0,94	23,83	0,10	8,32	0,17

6. Tranbia eta hiri autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Hiri-Garraioak, S.A. (TUVISA)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



7. Trafiko intentsitatea

Adierazle honek motordun ibilgailuen zirkulazio intentsitatea neurtzen du, adierazgarriak diren oinarritzko bidesareko 23 puntutan urte osoan zehar egindako intentsitate neurketen batez bestekoa erabiliz.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua (aforoen sare automatikoa)

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero

Kale	2012	2013	2104	2015
Juan Garai (Arriagako atea-Forondako atea)	17.228	17.434	16.844	17.184
Gasteiz hiribidea (T. Zumarraga dohatsua-Adriano VI)	Sin datos	Sin datos	8.722	8.591
Errege-erregina katolikoak (Martin Salinas pz.-Santa Isabel)	18.648	17.882	17.766	18.692
Txile (Argentina-Fdz. de Leceta)	8.157	6.897	Sin datos	Sin datos
Domingo Beltran (Badaia-Gurutze Zuria)	10.248	11.688	9.362	9.849
Herrandarrak (Estenaga apezpikua-Kalonjeen zidorra)	14.626	15.273	12.928	8.247
San Ignazio Loiolakoa (Arriagako atea-Legutianoko atea)	10.799	9.901	8.650	Sin datos
Frantzia (Prudencio Maria Berastegi-Aska kalea)	13.429	Sin datos	Sin datos	Sin datos
Francia (Arana-Esperanza)	Sin datos	12.148	11.283	11.091
Olagibel (Bakea-Herrandarrak)	4.271	Sin datos	Sin datos	Sin datos
Olagibel (Lizarrako Markesa-Foru)	6.997	6.928	Sin datos	2.863
Bakea (Done Jakue Ibilbidea-Olagibel)	13.540	12.551	11.646	11.722
Madril (Valladolid-Deba artoa)	9.450	9.533	9.758	10.090
Madril (Deba artoa-Valladolid)	8.413	8.431	8.151	8.280

- Neurketa puntu batzuk aldatu egin dira eta beste batzuetarako ez da informaziorik jaso obrak egon direlako eta tranbia funtzionamenduan sartu delako.

8. Garraio-azpiegiturera bideratutako azalera

Adierazle honek garraioari eskainitako udal-azalera adierazten du, garraio-motak desberdinduz.

Datu iturria: Lur erabileren mapa (Vitoria-Gasteizko Ingurumen Informazioko Sistema-SIAM).

Joera desiragarria: gutxitzea ibilgailu pribatuaren erabilerara bideratutako azalera; gehitzea garraio publiko kolektiboari, oinezkoen erabilerari eta bidegorriei bideratutakoa

Neurtze aldia: bi urtean behin

	2011		2013		2015	
	m ²	%	m ²	%	m ²	%
Garraio publiko kolektiboaren						
erabilerarako azalera	451.783	2,93	513.316	3,29	568.670	3.5%
Bidegorrien azalera	396.812	2,57	425.905	2,73	504.774	3.1%
Oinezkoen erabil. azalera	4.084.591	26,50	4.153.201	26,65	4.456.221	27.6%
Ibilgailu pribatuaren						
erabilerarako azalera	10.482.735	68,00	10.491.064	67,32	10.619.695	65.8%
Garraio-azpiegiturera						
bideratutako azalera	15.415.921	100,00	15.583.485	100,00	16.149.360	100.0%

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Autobus-linea berria

Otsailaren 27an hainbat aldaketa egin ziren TUVISAren sarean. Aldaketa nagusia linea berri bat sortzea izan zen, L10 Aldaia-Larrein izeneko, zeinek hiriaren ekialdea eta mendebaldea komunikatzen baititu, Udalaren San Martineko instalazio berrietatik eta hiriaren erdialdetik igaroz. Aldaiko lotura-autobusaren hiriaren erdialderako luzapen natural gisa sortu da linea berri hori. Izan ere, saturazio-arazo ugari sortzen zituen Zabalgana-Arkaite 6. linean, erabiltzaile-kopuruari dagokionez bigarrena izaki hori. Linearen ibilbidea hiriaren ekialderaino jarraitzearekin, beste linea batzuen diseinua optimizatzeo aukera eman du (3, 6, 7 eta 9), eta horien ibilbide-zati batzuk eta hainbat erabiltzaile bereganatu ditu.

2015eko Mugikortasun Iraunkorren Europako Astea


2015eko Mugikortasun Iraunkorren Europako Astea irailaren 17tik 24ra egin zen, "Do the right mix" lema pean, hau da, hirietan mugitzeko bitartekoen nahasketa egokia egiteko gonbitea. Herritarrek parte hartzeko hainbat jarduerak osatu zuten programa, hauek, besteak beste: mugikortasun arduratsuari buruzko lantegia, "Etxe Berdeak" programaren barruan; "Ezagutu Vitoria-Gasteiz patinatuz" izeneko herri ibilaldia; Gasteizko ikastetxeek lanerako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko hartu duten konpromisoaren aurkezpena, zeinean 21 Eskola Agendan parte hartzen duten 16 ikastetxetako 500 ikasle inguruk bizikleta-ibilaldia egin baitzuten erdigunetik udaletxeraino, eta bertan Udalbatzak hartu baitzituen; Hiri Ekologiaren Gelaren saioa, "Kantabriako Unibertsitatean bizikleta sustatzeko esperientzia bat" gaitzat zuena. Orobat, irailaren 23tik 26ra bizikletaz seguru eta arduraz zirkulatzeari buruzko informazio stand bat jarri zen hiriko zenbait lekutan, lapurreten aurkako kalitateko sistemen eta ikuspen-baldintzak txarrak direnean argiak piztearen garrantziaren berri emateko, bai eta udalaren bizikleta erregistroa aurkezteko ere.

MOVESMART proiektua

MOVESMART (Renewable Mobility Services in Smart Cities) europar proiektu bat da, zeinean Gasteizez gain Pula hiriak (Kroazia) eta beste kide alemaniar, greziar, britainiar eta espainiar batzuek (11 guztira) parte hartzen baitute. Banakoak mugitzeko sistema "smart" batean oinarritutako zerbitzuak garatzea da helburua, alegia, garraibide garbietan mugitzeko ibilbide egokienak aukeratzea ahalbidetzen duten sistemak, mugikortasun iraunkorrerako lortzearren. Erabiltzaileak sisteman erregistratu ondoren, smartphonean instalatutako aplikazio batek motorrak zein lekutan dauden jakinaraziko die, eta horiek hirian barrena mugitzeko baliatu ahalko dituzte. Bidaia bukatu ondoren, motorra edonon utz dezakete, zerbitzuaren perimetroaren barruan —proba pilotuan, erdigunea—. MOVESMART proiektuaren oinarria smartphoneetarako aplikazioaren garapena da, erabiltzaileari jakinaraziko baitio zein ibilbide eta garraibide diren bidaiatzeko iraunkorrenak. Esate baterako, ibilbide askoren kasuan aplikazioak aukera iraunkorra oinez joatea dela esan diezaiokete erabiltzaileari, edo garraio publikoa, bizikleta, motorra edo horien konbinazio bat erabiltzea.

Txirindulariak zenbatzeko sistema automatikoa Gasteiz hiribidean

2015eko azaroaren 5ean, bizikletak zenbatzeko sistema automatikoa martxan jarri zen Gasteiz hiribideko bi bizikleta bideetan. Eco Counter enpresak garatu du sistema, eta Udalarik doan utzi dio urtebeterako. ZELT izeneko kontagailuek zirkulazioaren bi noranzkoetan igarotzen diren txirindulariak zenbatzen dituzte, eguneko edozein unetan, eta fidagarritasun handiz (gehienez % 5eko errorea). Bestetik, sistemak eguneko datu meteorologikoak jasotzen ditu, eta horrek parametro ezberdinekin (tenperatura edo euria) lotutako datuak alderatzeko bide ematen du. Zenbaketa lehen hilabeteetako datuen arabera, eguraldi ona egiten duen egunetan 4.000 bizikleta inguru igarotzen dira. Euria egin zuen egunetan, gutxi gorabehera 2.000 txirindulari ibili ziren Gasteiz hiribidetik. Asteburuetan bizikletaren erabilera txikiagoa izan zen, beraz, ondorioztatu daiteke txirindulariek batez ere lanera edo ikastera joateko erabiltzen dutela Gasteiz hiribideko bidegorria.



URA

JASANGARRITASUNENKO HELBURU OROKORRA:

- UR HORNIDURA ETA URAREN KALITATE ONA BERMATZEA
- UR KONTSUMOA ARRAZOIZKO EGITEA
- URAREN KALITATE INTEGRALA BABESTEA



URAREN KALITATEA

Ur-baliabideen kalitateak bere erabilera posibleak zehazten ditu. Bai ur edangarriak, bai jolas-jardueretara, ureztatza eta industria- eta nekazaritza-erabileretara bideratzen den urak kalitate ona izan behar dute; era berean, ur-ekosistemak mantentzeko behar den urak ere kalitatetik onena izan behar du.

Uretara joaten diren hainbat sustantziaren eraginez kutsadura sor daiteke, batez ere gizakien ekintzen ondorioz, hiri- eta industria-isurkinen bitartez, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren ondorioz, etab. Horregatik, beharrezkoa da ur zikinak tratatzea ur-ibilguetara itzuli aurretik.

9. Hiriak Zadorra ibaiari ematen dion karga organikoa


Oxigeno-Eskari Kimikoa (OEK) uretan dauden osagai guztiak oxidatzeko behar den oxigenoaren neurria da. Eskari horretatik abiatuz, Oxigeno-Eskari Biokimikoaren (OEB) kalkuluak egin daitezke. Oxigeno-Eskari Biokimikoa uretan materia organikoa narriatzeko prozesu biologikoan kontsumitzen den oxigeno-kopuruaren neurria da; zenbat eta handiago izan OEB, are handiagoa izango da materia organikoaren kopurua, eta ondorioz, baita kutsadura-maila ere.

Zadorra ibaiko urak Krispiñanako Ur Zikinen Araztegiko efluentea jaso ondoren egiten duen OEK gehikuntza aztertzen du adierazleak. Ur Zikinen Araztegiaren aurretik (1. puntua) eta ondoren (2. puntua) egindako neurketen aldetik ateratzen da adierazlea.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero




10. Ur zikinen arazketa

Funtsezkoa da ur zikinak saneatu eta arazteko sistemak egokiak izatea, erabilera zein kopuru aldetik, ibilgu publikora egiten diren isurketen eragina minimizatze-ko. Adierazle honek ur zikinak tratatzeko sistema egokiak dituzten Gasteizko etxebizitzaren ehunekoa aztertzen du.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Espazio Publikoa eta Natur Ingurunea Zerbitzua

Joera desiragarria: arazte sistemarik gabeko etxebizitzaren gutxitzea

Neurtze aldia: urtero



UR-KONTSUMOA


Ura funtsezko elementua da bizitzarako eta, gainera, beharrezkoa da ekonomia-jarduera gehienetarako. Gure planetan nahiko ugaria den baliabide berriztagarria den arren, hornidurak beherakada handia ari dira jasaten gaur egungo kontsumo eta kutsadura handiengatik.

11. Uraren etxeetako kontsumoa

Datu iturria: Gasteizko Udal Urak, S.A. (AMVISA)

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero




12. Ur-eskari osoa

Datu iturria: Gasteizko Udal Urak, S.A. (AMVISA)

Joera desiragarria: gutxitzea


Neurte aldia: urtero



13. Ur-eskari osoaren sektore-banaketa

Datu iturria: Gasteizko Udal Urak, S.A. (AMVISA)

Neurte aldia: urtero



- Udal-kontsumoa (udal-instalazio eta zerbitzuak)
- Zerbitzuetako eta industriako kontsumoa
- Elxetako kontsumoa


14. Ur edangarriaren banaketa-sarearen errendimendua

Sarearen errendimendua ur edangarriaren banaketak duen efizientzia-maila adierazten du. Errendimendu hori lotuta dago sareko ihesekin, iruzurrezko ur-hartzeekin, erregistratu gabeko hartze baimenduekin edo kontagailuetako azpi-kontaketarekin.

Datu iturria: Gasteizko Udal Urak, S.A. (AMVISA)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurte aldia: urtero



Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Isuriak aurkitzeko sistemaren hobekuntza

2015ean, zuntz-zementuzko hornikuntza-sarearen erabateko kontrola egiten jarraitu zen, 760 permalog baliatuz, eta sarearen eraginkortasun-mailari eutsi ahal izan zitzaion hartara.

Zuntz-zementuzko hornikuntza-sarea berritzea

Zuntz-zementuzko sarea berritzen jarraitu zen, eta 16.000 metro hodi ordeztu. Berebiziko garrantzia izan du Ehari-Gobeuko hoditeriak berritzeak.

Arakako biltegiak sendotu eta berritzeko lanak

Arakako 1. biltegia sendotu da, eta 2. biltegia eraitsi eta berria egiteko proiektua egin da, 30.000 m³ hartu ahal izateko.

FUTURA plana

2015ean, aurrera jarraitu zuten Futura planaren baitako jarduerak, uraren zentzuzko erabilera sustatzea eta hirugarren fasean ziklo integralaren eraginkortasuna hobetzea helburu. Planaren emaitzak agerikoak dira, eguraldia gorabehera kontsumo-mailak baxua izaten jarraitu baitu.

Uraren kalitate-kontrolaren hobekuntza

Sareen eta hartuneen kontrola areagotzen jarraitu zen, eta tratamendu-estazio berrietan uraren klorazioa areagotzeko asmoa dago.

IRRIGESTLIFE proiektua

IRRIGESTLIFE proiektua 2012ko irailean abiarazi zen, ureztatzeko sistema adimentsu bat (GestDropper izenekoa) garatzeko asmoz proba-eremutat Gasteiz erabiliz. GestDropper sistemak hirian barrena jarritako sentsore eta meteorologia-estazio batzuen datuak baliatzen ditu ureztapen bolumena automatikoki optimizatzeko. Hiru osagai nagusi ditu: meteorologia-estazioak (tenperatura, haizearen abiadura eta prezipitazioa neurtzeko sentsoreak dituztenak), elektrobabulak (emaria eta kontsumo elektrikoa neurtzeko sentsoreak barne), eta programagailuak, zeinak mini-ordenagailuak baitira funtsean, aipatutako osagaiak jasotako informazioa integratu eta ureztapena automatikoki zuzentzen dutenak. Sistema udalaren Geografi Informaziorako Sistemarekin komunikatzen da, eta handik prozesua monitorizatu eta eskuz kontrolatu daiteke. Hartara, GestDropperrek aukera ematen du ureztapena tokiko meteorologia baldintzetara egokitzeko —esaterako, euriteei edo haize bolada gogorrei, lehen kasuan ez baita ureztatu behar, eta bigarreanean, ez baita eraginkorra—, eta sistemak isuririk edo akatsik badu unean bertan erantzuteko. Aurreko urteen aldean aurrezpen nabaria izan da ureztatzeko ur kopuruan, % 32koa. Zehazki, GestDropper sistema instalatu ondoren, 419 l/m² erabiltzetik 285 l/m² erabiltzera igaro da 2015eko ureztatze kanpaina. Horri gehitu behar zaio isuriak unean bertan antzeman eta horietaz ohartaraziz erantzuteko denbora optimizatzek eragotzi duen ur gastua. Beraz, kudeaketa adimentsuaren bitartez ureztapena eraginkorragoa dela egiaztatzen da.

Saneamendua

2015ean hondakin-uretarako 7.963 metro hodi berritu dira, eta euri-uretarako 4.579 metro hodi berri jarri da.

Orobat, Gasteizko estolderia sarearen hodi biltzaileko gainezkabideak berritzeko lana egin da, FEDER 2007-2013 Kohesio Funtsen kofinantzaketaz. Hodi biltzaile nagusiko lau gainezkabideetan tapatxoak jarri dira, Zadorra ibaia saneamenduan sar ez dadin. Gainera, 4 bahe jarri dira lhurreko gainezkabidean, solido lodiak (oihaltxoak, zapiak...) Zadorrara irten ez daitezen hodi biltzaileak sartzen ari den emaria hartzeko ahalmenik ez duen une puntualetan. Mateo Moraza, Kontzeju eta Laragana kaleetako 500 metro hodi berritu da mahuka autosostengarrien bidez, zangarik ireki beharrik gabe.

Gasteizko udalerriko isurketak eta hondakin-urak kontrolatzearen alorreko jarduerak, 2015ean


Udalaren saneamendu-sarera isurtzen direnen jarraipenari dagokionez, bi motatako kontrolak egiten dira. Alde batetik, jardueren barne-sareko aldian aldiko kontrol programatuak. Zentzu horretan, 2015ean hamasei dossier abiarazi ziren, hainbat jarduera eta neurri zuzentzaile galdatzeko, zenbait isurketek parametro jakinetan finkatutako mugak gainditzen zituztela detektatu zelarik han-hemenka. Bestetik, ikuskatze-kontrolak egiten dira saneamendu sarean bertan. Zentzu horretan, saneamendu sisteman barrena doan hondakin-uraren ezaugarrien berri izateko eta Etxeetakoez Kanpoko Isurketei buruzko Udal Ordenantzan jasota dauden kutsadura-parametroen inguruko gorabeherak detektatzeko egiten diren kontrolak bereizten dira —bai hustubidean, bai alde zuzenetik aukeratutako saneamendu-sareko hainbat lekutan gai arriskutsuak zehazteko laginketa-ekipoak jarri egiten direnak—. Sarera isurtzen direnetan izan litezkeen gaien presentzia identifikatzea du helburu azterketa horrek, eta uraren ziklora bihurtzeko egin litzaketen bideak identifikatzea. Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saileko Isurketak Ikuskatzeko Zerbitzuti aholkularitza eskaintzen zaie etxekoez kanpoko isurketak sor ditzaketen enpresei. Horretarako, sortzen dituzten hondakin-uren ezaugarriak hobeto ezagutu nahi dituzten enpresei neurketa-ekipoak —digestore batek eta fotometro batek osatuak— uzten jarraitu zen 2015ean, beren kontrol propioak egiteko erabili beharko lituzketen ekipo-motak zehazten laguntze aldera.

ENERGIA



JASANGARRITASUNEKO HELBURU OROKORRA:

- ENERGIA KONTSUMOA MURRIZTEA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA SUSTATZEA



15. Argindar eta gas naturalaren kontsumoa etxean

Energia funtsezko elementua da ongizatea lortzeko eta gizarte osoaren garapen ekonomikorako, baina ingurumen-inpaktuen iturri garrantzitsua ere bada. Energia-sistemako fase bakoitzak (produkzioa, transmisioa, banaketa eta kontsumoa) ingurumen-inpaktuak sortzen ditu, neurri handiago edo txikiagoan, erabiltzen den energia eta teknologiaren arabera.


Energia-kontsumo osoa zenbatzeko zailtasunaren aurrean, adierazlea etxeko sektoreari bakarrik dagokio¹.

Datu iturria: IBERDROLA eta NATURGAS

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero

GAS NATURALA. Etxeko eta merkataritza sektoreak



¹ Etxeko zein merkataritza sektoreen gas naturalaren kontsumoa, sektoreen arabera bereziaz, lortzea ez da posible, hori dela eta, datua bi sektoreen gehiketa dagokio

ELEKTRIZITATEA. Etxeko sektorea



ELEKTRIZITATEA. Merkataritza sektorea



16. Efizientzia energetikoko ziurtagiria lortu duten etxebizitzetako kopurua


Etxebizitzetako efizientzia energetikoko ziurtagiriak ziurtatzen du etxeek energia-aren aprobetxamendu maximoa lortzera zuzendutako zenbait eraikitze neurri eta irizpide betetzen dituztela. Ziurtagiriak eraikinen efizientzia termikoa neurtzen du bi ikuspuntutik: berotze-sistema eta ur beroaren ekoizpena. Horretarako, eraikinen isolamendu-maila eta energia ekoizteko instalazioak bezalako alderdiak ikuskatzen dira, besteak beste.

Adierazleak adirazten du zenbat etxebizitzak duten ziurtagiria udalerriko etxebizitzetako kopuru osoarekiko.

Datu iturria: CADEM

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



Etxebizitza kopurua (%)	14,4
Etxebizitza kopurua	16.565
Etxebizitza kopurua (guztira)	114.907

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ETA ENERGIA-ERAGINKORTASUNAREN

Energia-eraginkortasunarekin lotutako ekintzak eta energia berriztagarrien ezarpena udal instalazio eta zerbitzuetan

ARGITERIA PUBLIKOAREN ALORREKO JARDUERAK

Gasteizko Zabalgunean argiteria publikoa hobetzea.

LED teknologia duten luminariak instalatu dira Zabalguneko hainbat kaletan — Olagibel kalea, Eduardo Dato kalea, Posta kalea, Alaba Jeneralaren kalea, San Prudentzio kalea, San Antonio kalea, Foru kalea eta Arka plaza—, orain artekoak baino eraginkorragoak izaki. Energia-kontsumoa murrizteko aukera ematen du horrek, eta argiteria publikoaren energia-eraginkortasunaren araudiarekin bat datozen argiztapen- eta uniformetasun-mailak lortzekoa. Gainera, orain arte zeuden argiek eragiten zuten itsutzea eta argi-kutsadura ekiditen dira. Guztira 177 luminaria ordeztu dira, eta luminaria bakoitzeko 150 eta 400 W-ren arteko potentziatik 34 eta 200 W artekora igaro.

Aduztza auzoan argiteria publikoa hobetzea.

51 luminaria ordeztu dira, LED teknologiakoak jarritz, eta farola bakoitzeko 250 W-tik 110era igaro. Txirula, Txalaparta, Errota, Dultzaina eta Jose Uruñuela kaleetan burutu da esku-hartzea.

Arriagako parkeko argiteria publikoa hobetzea.

Lehendik zeuden farolen barrualdea aldatu da, polikarbonatozko itxiturak kenduz, zaharkitu ahala argitasuna galarazten baitzieten farolei, eta orobat kendu dira lehendik zeuden argi-iturriak, 250 W-ko VSAPak, eta horien ordez LED ereduak jarri, gehienez 60 W-ko potentziakoak. Guztira, 130 farola egokitu dira.

Betoñuko industrialdeko argiteria publikoa hobetzea.

98 luminaria ordeztu dira, Arrasate, Oñati, Eibar eta Eskoriatza kaleetan, luminaria bakoitzeko 250 W-tik 78ra igaroz.

Euskaltzaindiaren plazako argiteria publikoa hobetzea —autobus-geltoki berriaren kanpoaldean—.

Bola-ereduko 139 farola ordeztu dira, eta LED teknologiakoak jarri, farola bakoitzeko 150 W edo 250 W-tik 25 edo 80 W-ra igaroz.

Hiriko beste zona batzuetako argiteria publikoa hobetzea.

Gasteiz hiribidean 168 unitate ordeztu dira, eta LED teknologiakoak jarri, farola bakoitzeko 150 W-ko potentziatik 31 eta 54 W-ra igaroz, eta beste 80 unitate hiriko beste zona batzuetan, 250 W-tik 100 W-ra igaroz.

ESKU-HARTZEAK UDAL ERAIKINETAN

Udal eraikinen energia-ziurtagiria

Hirigintza Sailarekin eta Udal Eraikinetako Mantentze Sailarekin elkarlanean, 12 eraikin ziurtatu eta erregistratu dira: gizarte-etxeak (Ibaiondo, Iparralde eta Salburua), ikastetxeak (Judimendi, Padre Orbiso, Ramón Bajo, Haurtzako haur eskola eta Henrike Knörr haur eskola), Landatxoko kiroldetgia, Europa jauregia, Pilarreko AZSK eta Olarizuko etxaldea.

Energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna

Hobekuntzak birgaikuntzan eta udal eraikin berrietan: Hirigintza Sailarekin eta Udal Eraikinetako Mantentze Sailarekin elkarlanean, San Martineko bulego-eraikin berriko energia-kudeaketa landu da, baita Europa biltzar-jauregia birgaitu eta handitzeko obren baitako ingurumen-prozesuan ere, eraikinaren ingurumen-birgaikuntzari buruzko web-orria garatuz. 2015ean, energia-hobekuntzak egin ziren Europa biltzar-jauregian ere; 401.000 euro inbertitu ziren, urtean 160.300 kWh aurrezte aldera.

Gainera, beste udal eraikin batzuen inguratzaileak hobetzeko jarduerak ere burutu dira, hala nola Mirentxu ikastetxeko kanpoko aldeko arotzeria aldatu eta Paulo Freire HHIko ikastetxeko, Goiuri jauregiko eta San Antonio kaleko zainpeko apartamentuetako estalkiak konpondu.

Udal ekipamendu eta zerbitzuetako elektrizitatearen kontratazioaren kudeaketa

2015ean, Energiaren Agentziak Udal Eraikinetako Mantentze Sailarekin eta Argiteria Publikoaren Zerbitzuarekin elkarlanean jarraitu zuen, kontratu elektrikoak optimizatzen eta kontratuen bi datu-base eguneratzen: lehena, udal eraikinei dagokiena, eta bigarrena, berriz, argiteriari eta espazio publikoari dagokiena. Era berean, bi lehiaketa argitaratu ziren, energia elektrikoaren hornikuntza kontratatzeko: batetik udal eraikinetarako eta, bestetik, argiteria publikorako eta espazio publikoko bestelako erabileretarako.

SmartEnCity proiektua

Proiektu horrek CO₂rik gabeko hiri adimentsuak sortzeko europar estrategia garatu nahi du, eta Tartu (Estonia), Sondeborg (Danimarka) eta Gasteiz hirietan gauzatu da. Gasteizen, Koroatzearen auzoaren birgaikuntza energetikoaren bidez gauzatu da proiektua. Gasteiz berdeagoa, karbonoan neutroa, eta bertako ekonomia eta balibideak sustatzen dituen hiria bihurtzeko bidean mugarria izan nahi du proiektuak, zeina 2015ean onetsi eta 2016ko erdialdetik 2021era arte garatu baita. Koroatzeko auzoko bizi-kalitatea hobetzeko aukera paregabea da: 1.313 etxebizitza energetikoki birgaituko dira, erosoagoak izan daitezten, eta kaleak eta plazak berrituko, auzoa erakargarriagoa izan dadin. <http://www.vitoria-gasteiz.org/coronacion>


HEZKUNTZA-, SENTSIBILIZAZIO- ETA ZABALKUNDE-EKINTZAK

Etxe berdeak


Gasteiztarrak etxeko kontsumoa gutxitzeak duen garrantziaz sentsibilizatzea da Etxe Berdeak programaren helburua, eta herritarren eguneroko ohiturak aldatzea, hirian ingurumen-inpaktua murriztuko duten etxebizitza eraginkorragoak eta ekologikoagoak lortu daitezten. Ekimen honek ingurumenaren ikuspegitik zein ekonomikoki etxebizitza eraginkorragoa eta iraunkorragoa lortzeko laguntza pertsonalizatua eskaintzen die familiei.

Lortutako emaitzek erakusten dute % 19 gutxitu dela gas naturalaren kontsumoa, eta % 15 elektrizitatearena. Era berean, uraren % 24ko aurrezpena lortu da. Gainera, parte hartu duten etxeen % 65 materia organikoa bereizten hasiak dira.

Programaren lehen deialdi honen arrakastaren ondoren, programaren bigarren edizioa ari da garatzen 2016an. Oraingo honetan, Gasteizko udalerriko 50 familia ari dira parte hartzen.



INDUSTRIA



JASANGARRITASUNEKO HELBURU OROKORRA:

- INDUSTRIA PROZESUEK SORTUTAKO INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA MURRIZTEA
- PRODUKZIO GARBIA SUSTATZEA



17. Ingurumenaren kudeaketarako ziurtagiria duten enpresak


Ingurumenaren aldeko konpromisoa hartu behar dute enpresa handi, ETE, erakunde publiko eta GKE-ek eguneroko kudeaketan. Ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema izateak, enpresak edo erakundeak indarrean dagoen ingurumen-araudia behar bezala betetzen duela eta prozesuak eta jarduerak etengabe kontrolatzen dituela esan nahi du, horrela, ingurumen-portaera gero eta jasangarriagoa izango da.

ISO 14001 nazioarteko arauarekin edo Europako EMAS sistemarekin bat datorren ingurumen-kudeaketako sistema ziurtatua dute Gasteizko udalerrian kokatutako enpresa handi eta txiki askok. Bada, horiei buruzko adierazlea da hau.

Datu iturria: IHOBE

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



2015ean ziurtagiria lortu duten enpresak

- Instalaciones Luis Urbina, S.L.
- Alegria Hnos, S.A.
- Autobuses Hermanos Arriaga, S.A.
- Grupo Sarkis-Lagunketa
- Udapa, S.Coop.
- Mecanizaciones Kieserling Fabril, S.A.
- Alquileres Vitoria, S.L.
- LimpireSol, S.L.
- Kliner Profesional, S.A.
- Estudio de Arquitectura Basa, S.L.
- Boro Instalaciones Generales, S.L.
- Calesa Estructuras Y Proyectos, S.L.P.
- Osakidetza-Servicio Vasco de Salud
- Instalaciones Fojansa, S.L.
- Mintegui, Industrias del Camión, S.A.
- Afogasca
- Alquileres y Servicios Alkivent, S.L.
- Limpieza Norte Brillante, S.L.
- Sica, S.A.

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Enpresak sortzeko laguntzak

510 ekintzaileri eman zitzaion arreta 2015ean, 1.118 prestakuntza-ordu eman ziren, 68 ekintzatan, eta taldeko 60 prestakuntza-saio antolatu ziren. Gainera, aholku pertsonalizatu eta espezializatua eskaini da 37 proiektutan (188 ordu guztira). Aholkularitza zerbitzura datozen pertsonaei egiten zaien jarraipenaren bitartez, 2015ean gutxienez 82 negozio-idea enpresa bihurtu direla egiaztatu dugu. Beste 129 proiektu izapidetze-bidean dira, eta horietako batzuk enpresa bihurtuko dira.

2015an "Emakume ekintzaileak" programa abiarazi da, emakume ekintzaile eta enpresaburuen negozioak sendotzearen, Merkataritza Ganbararen eta Incyde fundazioaren laguntzarekin. Programan 25 emakumek hartu dute parte, eta 32 orduko prestakuntza eta tutoretza jaso dute. Emakumeek sortzen dituzten enpresei laguntzea helburu duen "Emakume ekintzaileak konektatzen" programak, berriaz, goranzko joerari jarraitu dio, 130 emakume enpresaburuk hartu baitzuten parte, hau da, 2014an baino % 30 gehiago.

Ikastetxeetan ekiteari buruzko sentsibilizazio programak oso harrera ona izan zenez, ildo horri jarraitu zaio, eta nabarmen hazi da parte-hartzaileen zein lantegien kopurua. Zehazki, 54 lantegi egin dira, eta 1.123 ikasle parte hartu dute horietan, hau da, aurreko urtean baino % 50 gehiago.

Laguntzak enpresa berrikuntza eta lehiakortasunari

Hainbat kanpainaren bitartez, 849 kontaktu zuzen eta pertsonalizatu egin ziren 516 enpresarekin, gehienak profesionalentzako jardunaldi teknikoekin lotuta.

Kontaktuen ia % 80 mikroenprekin —10 langile baino gutxiago dutenak— izan ziren; horiei 10 eta 49 langile artean duten enpresa txiki eta ertainak gehituz gero, % 88 dira.

Tokio enpresentzako ildoan zerbitzu hauek eman dira:

- Kudeaketari buruzko aholkularitza: 34 enpresek jaso zuten aholkularitza, hainbat arlotan hobekuntzak eginez enpresa-kudeaketa eraginkorragoa lortzeko eta in-gurunera egokitzeko gaitasuna areagotzeko asmoz.
- Energia-eraginkortasuna: 2015ean “Karbono maila txikiko ekonomia kostuak aurrezteko” programa jarri zen martxan, “Tokiko Enpresa 10” ekimenak kofi-nantzatua. Enpresaren kostu ekonomikoak gutxitzeaz gain, karbono emisioak murriztu nahi dira horren bidez, energia aurrezteko neurriak ezarri. Helburu hori bat dator hiriak iraunkortasunaren alde hartutako konpromisoarekin. Programan Gasteizko 10 enpresak hartu dute parte, batez ere industriek.
- Ekonomia zirkularra: 2015ean “Ekonomia zirkularra” programa jarri zen abian, eta horren bidez 6 enpresari aholkularitza pertsonalizatua eman zitzaion, haien hondakinak murrizteko eta baliatzeko aukerak aztertzeko.
- Nazioartekotzea: Arabako Merkataritza eta Industria Ganberarekin egindako hitzarmenaren baitan, enpresa lokalek merkataritza misioetan parte hartzea eta nazioarteko ferietara joatea bultzatu zen. Guztira 27 bidaiia-poltsa eman zi-ren, izen-ematearen eta bidaiaren kostuei aurre egiteko. Horri esker, 18 enpresa lokal izan ziren Europako nazioarteko 14 azokatarara, eta Tangerrera ere egin zen merkataritza misio bat.
- Enpresak profesionalizatzea: Enpresak eta profesionalak prestatzeko eta gaitze-ko jardura multzo bat eskaini zen; enpresen alorreko hainbat alderdi jorratu zi-ren bertan, baita alderdi estrategikoak ere. 2015ean, guztira 229 parte-hartzaile izan ziren enpresentzat antolatutako jardunaldi eta lantegietan.
- Eraikuntza iraunkorra: Aurreko urtean jorratzen hasitako lan-ildoari jarraituz, 2015ean zenbait jardunaldi antolatu dira eraikuntzaren sektorearekin lotutako teknika, material eta ikuspegi berriak zabaltzeko, iraunkortasunari begira: beira, leihoak eta energia aurrezteak; ISO 14001:2014 arauaren eguneratzea; eraikinen klimatizazioarako instalazio geotermikoak, eta Eraikuntza Iraunkorraren alorreko I. Topaketa. Jardunaldi horiek direla medio, sektoreko 112 enpresarekin jarri gara harremanetan, eta 67 enpresak hartu dute parte jardunaldi profesionaletan.
- Laborategi hiria: 2014an udalerrira osora hedatu zen programa, eta 2015ean sen-dotu egin da, 7 eskabide berri egin baitziren; horietako bost onetsi ziren, eta hi-riko zein hiri inguruko zenbait lekutan gauzatu. Nabarmendu beharra dago tek-nologiaren askotarikotasuna zein erdialdean eta Eratzun Berdean jarritako prototi-poen eta egindako erakustaldi esperimentalena.
- Industria Zerbitzua: 2015eko azaroan sortu zen Industria Zerbitzua, helburu hauekin: industrialdeak antolatu, kudeatu eta biziberritzea, eta enpresen eta Udalaren arteko bitartekari zuzena izatea. Azaroan I. Industria Foroa bildu zen, zeinean 7 elkartetan eta alor ezberdinetako 7 enpresak hartu baitzuten parte. Elkarrekin, parte-hartzaileek Gasteizko industriaren beharrak zehaztu zituzten.

Ekintzaile eta enpresentzako laguntzak

Enpresei Laguntzeko Zerbitzuak Udalak berak nahiz beste administrazio batzuek ematen dituzten laguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza eskaini zion en-presa eta erabiltzaileei. Horren ondorioz, laguntza ekonomikoetarako 301 eskabi-de tramitatu ziren guztira. Aipatzekoa da Gasteizen enpresa txikiak sortu, berritu eta lehiakortasuna sustatzeko laguntza-deialdia, 141 eskabide jaso baitziren, hau da, aurreko urtean baino % 42 gehiago. Orobat, Lanbideko ekintzaileentzat ematen

dituen laguntzearako 28 eskabide tramitatu ziren. Ekintzailletza sustatzeko ildoen artean Ekintzaileentzako Bekak programa nabarmendu beharra dago. Ekintzaileei beren enpresa proiektua garatzen duten bitartean laguntza ekonomikoa ematea da horien helburua. 125 eskabide (66 emakumeenak eta 59 gizonenak) jaso ziren, 106 proiektu ezberdinetarako, hau da, 2014an baino % 30 gehiago. Azkenean, 76 beka eman ziren (42 emakumeri eta 34 gizoni).

Itun Berdea

Duela hiru urte sortu zelarrik, "Itun Berdea" dagoeneko marka ezaguna da, Gasteiz hiri "berde" gisa duen lekua sendotzen jarraitzen duena. Ingurumen alorrean hobetzeko aukerak antzematen lagundu nahi die enpresei, beren errentagarritasuna hobetu eta aldi berean jokabide iraunkorrak sustatu ditzaten. 2015ean, beste 54 enpresa bildu ziren itunera, eta, horrenbestez, ekitaldiaren bukaeran guztira 823 ziren atxikitako enpresak. Orotara, 21 jardunbide egoki berri identifikatu ziren, eta ingurumen-iraunkortasuna zaintzeagatik nabarmentzen diren beste 23 enpresa gehitu ziren hornitzaile berdeen zerrendan.

Itun Berdeko Enpresen IV. Topaketa

Ingurumenaren aldeko apustua egin duten 35 enpresa eta entitatek baina gehiagok hartu zuten parte.

Hasteko, lantegi bat egin zen, Itun Berdeak zein erronkari egin behar dien aurre zertzeko: sare-lan handiago egin, enpresa gehiago erakarri, ekimen eta proiektu berriak sortu, eta Gasteizek ingurumenaren alorrean duen lekuari eutsi eta hori hobetu. Azkenik, ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea I. sariak banatu ziren, hiru kategoriatan: Gil Berzal upategiak mikroenpresentzako kategorian lortu zuen saria; Jardines de Uleta hotelak, enpresa txiki eta ertainen kategorian, eta Herbit S. L. galdaragintza-lantegiak, enpresa ertain eta handien kategorian.

Ingurumen-hobekuntzaren kudeaketa, Ekoscan arauaren ildotik, Jundizko Udal Enpresa Zentroan

2015eko martxoan, Jundizko Udal Enpresa Zentroan ezarritako ingurumen-hobekuntzaren kudeaketarako sistemak zortzigarren jarraipen-ikuskaritza gainditu zuen; energia- eta ur-kontsumoa murrizteko neurriak aplikatzean oinarritutako sistema da. Gainera, Jundizko enpresa-zentroa berritzeko kontratazioetan erosketa berdeen irizpideak kontuan hartu ziren.

Erdi Aroko Hiriguneko Enpresa Zentroan, berriz, ingurumen-hobekuntza kudeatzeko Ekoscan sistemaren ziurtagiria lortu zen 2015ean, bertan egoitza duten enpresen laguntzarekin.

Basaldea proiektua, nekazaritza ekologikoaren sektorean enpresak sortzeko

2015ean, berriro sinatu zen erakundeen arteko hitzarmena, zeinak esparru juridikoa ematen baitio proiektuari. Bestetik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren ureztatzeko baimena formalizatu zen. Euskadiko ekoizle ekologikoen eroldako izen-ematea ere mantendu zen.

Nekazaritza ekologikoaren produktuak merkaturatzeko kanalarri dagokionez, azaroan proiektuaren jarraipen-bilera egin zen Azoka plazan, produktu ekologikoak eskuztatu eta saltzeko guneak eta saltokiak nola geratu diren ikusteko. Goiko terrazan produktu ekologikoen bi saltoki daude: bata, Cáritasekiko lankidetzan gara-

tzen ari den gizarteratze-proiektuarentzat, dagoeneko irekia; bestea, Basaldeako ekintzaileentzat. Produktu ekologikoak biltegitratzeko espazio bat eraiki da: bate-tik, jaki-toki lehorrean (12 ganbera) gordetzeko; bestetik, hotz-ganberan (21 tar-te). Mahaiak, garbitokiak eta apalak dituen gela bat ere egokitu da. Urteko pres-takuntza planean ikastaro hauek eman dira: hazi ekologikoen produkzioa (25 ordu eta 17 pertsona), nekazaritza ekologikorako lurren konpostajea eta ongarriak (20 ordu eta 16 pertsona); nekazaritza ekologikoa negutegian (70 ordu eta 16 perso-na), lursail eta proiektuen diseinu aurreratua, permakultura bitartez (65 ordu eta 18 pertsona); landare ekologikoen kontserbak egitea (60 ordu eta 13 pertsona).

Merkataritza txiki lokala dinamizatzea

2015ean, 14 saltoki bisitatu dira, hiriko merkataritza alderdi nagusietan zein bi-garren mailakoetan. Aurreko urteetan bezala, Eguberrietako argiztapenean led te-knologia baliatu da, dinamizatzeke jarduera horren energia kontsumoa murrizten laguntzen baitu.


Zerbitzu pertsonalen alorreko saltoki eta enpresa txikientzako laguntzak

2015eko deialdian 165 eskabide jaso ziren, eta guztira 111 laguntza eman ziren, hau da, % 67,27. Eskaeren kopurua % 3 jaitsi bazen ere, emandako laguntzen ko-purua ia % 5 handitu zen.



JASANGARRITASUNEKO HELBURU OROKORRA:

- HONDAKIN PRODUKZIOA MURRIZTEA
- HONDAKINEI AHALIK ETA BALIO HANDIENA EMATEA
- HONDAKINEN TRATAMENDUAK ETA KUDEAKETAK OSASUNARI ETA INGU-RUMENARI ARRISKURIK EKARTZEA SAIHESTEA



18. Etxe eta saltokietako zaborrak biztanle eta eguneko

Kontsumoa eta per capita errenta handitzeak zerikusia du hondakin asko sortzarekin. Zaborrak sortze horrek kostu handiak eragiten ditu ekonomia- eta ingurumen-arloetan: baliabide material eta energetikoen kontsumoa, lurzorua okupatzea, etab.

2008. urtetik aurrera, adierazlea kalkulatzeko beste metodologia bat erabiltzen da. Metodologia honek hiri hondakinen pisua neurtzen du, bai etxeko hondakinekin zein erakundeen, denden eta bi horien parekoak diren jardueretatik datozenak, betiere udal zerbitzuek jaso badute (ez dira barnean sartzen hirian bitarteko pribatuaren bidez jasotzen diren hiri hondakin asimilagarriak).

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero

2012	1,03 kg/bizt/egun
2013	1,00 kg/bizt/egun
2014	0,99 kg/bizt/egun
2015	0,98 kg/bizt/egun

19. Hiriko hondakin solidoen birziklapena

Hondakinak sortzeak ingurumenean izango duen eragina, hondakin horiei ematen zaien tratamenduaren arabera izango da. Horregatik, birziklapena eragin hori txikitzeko modua da. Hori horrela, tokian tokiko lehentasunezko helburuak dira hondakin gutxiago sortzea eta sortutako hondakinekiko baliagarri bihurtutako hondakinen portzentajea handitzea.

2008. urtetik aurrera, adierazlea kalkulatzeko beste metodologia bat erabiltzen da. Kalkulu hau egiteko erabili diren hondakin zatikiak hurrengoak dira: bolumen handiko hondakinen bilketa espezifikoak, edukiontzien bidez eta atez atez egiten diren bilketa selektiboak papera-kartoiari, beirari, ontzi arinei eta arropen dagokiekin, pilen bilketa eta puntu berdeetan bildutako hondakinak, bai puntu berde mugikorrean bai garbiguneetan.

2012	23,60%
2013	23,50%
2014	24,60%
2015	26,50%

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Hondakinen Prebentzioaren Europako Astea

Hondakinen Prebentzioaren Europako Astea izan zen azaroaren 22tik 30era bitartean —hirugarren edizioa—, sortzen ditugun hondakinak murrizteko premiaz ohartarazteko asmoz.

Ahalik eta herritar gehienengana iristeko, jarduera hauek burutu zituen Udalak —diptikoak, posterrak eta txartelak baliatuz egindako zabalkunde-kanpainaz gain—:

- Ateak zabaltzeko egunak, Jundizko Tratamendu Mekaniko Biologikorako Lantegia, Boulevar merkataritza-zentroko konpostatze planta nahiz Ibaiondo ikastolako konpostatze esperientzia ezagutzeko.
- Bilketa pneumatikorako hiru buzoi-multzotan esku-hartze artistikoa gauzatze-ko lehiaketa.
- Beira-hondakinen gaikako bereizketa sustatzeko komunikazio-kanpaina, Ecovidriok Zabalguneko kaleetan egina. Hiru jardunaldi, bost begiralerekin, kaleetan barrena informazioa emateko.

Herritarrei zuzendutako komunikazio-kanpaina, hondakinen alorreko jardunbide egoki eta okerrak nabarmentzeko

Hondakinen Prebentzioaren Europako Astearen baitan, herritarrei zuzendutako komunikazio-kanpaina egin zuen Udalak, hondakinen alorreko jardunbide egokiak nabarmendu eta sustatzeko —gaikako bereizketa, gaikako edukiontzien eta buzoi pneumatikoen erabilera egokia, ezarritako ordutegiak eta Garbiketari buruzko Ordenantza errespetatzeko beharra eta abar—, eta, aldi berean, alor horretako ohitura txarren kalteak bistaratzeko.

Hondakinen gaikako bereizketa sustatzeko kanpaina, Gasteizen bizi diren atzerritarrei zuzendua

Informazio-kanpaina bat egin zen, paperaren eta kartoiaren nahiz ontzi arinen gaikako bereizketaren alde onak ezagutzera emateko eta atzerritarrak horretan inplikatzeko. Gasteizen bizi diren atzerritarrei zuzendu zitzaien kanpaina; zehazki, komunitaterik handienak osatzen dituztenei, hots, txinatarrei, errumaniarrei eta arabiarrei. Informazio-orriak argitaratu ziren, bost hizkuntzatan, hirian fun-

tzionatzen duen bilketa pneumatikorako sistemaren erabileraren inguruan. Hondakinak non eta nola utzi behar diren azaltzen zen bertan, eta begiraleek banatu zituzten, bilketa pneumatikorako sistema ezarria dagoen lekuetan. Orobat utzi ziren elkarteetan, dendetan eta etorkinen egoitzetan. Ecoembes-ek jarritako funtsekin egin zen kanpaina.

Beirazko ontzien gaikako bereizketarako kanpaina

Ardoaraba 2014 azokarekin batera, ostalariei eta herritar orori zuzendutako kanpaina egin zuen ECOVIDRIK, beira-hondakinaren gaikako bereizketa sustatzeko. Tren bat ibili zen karpaz karpa, "Ardoarabak birziklatzen du" lemarekin, joan-etorriak errazteaz batera beira birziklatzearen aldeko publizitatea egiten, eta informazio-orriak zabaldu zituen bisitarien artean, baita hainbat sari banatu ere, zozketa-txartelen bitartez.

Garbiketarako eta udal hondakinaren bilketarako makineria handitzea

Gas naturalarekin ibiltzen diren ekortzeko hiru makina berri eta bilketarako beste bi ibilgailu gehitu ziren kontratuan, 2014an, dauden makinak berritzen joateko eta kalitate handiagoko zerbitzua eskaintzeko.


Egutegia argitaratu eta banatzea

2015eko egutegia argitaratu zen, non zehazten diren etxeko hondakinak behar bezala kudeatzeko modu egokiak, gerora horiek berrerabili edo birziklatzerik izan dadin. Eskoletako 6 urtetik 12ra bitarteko haur guztiei banatu zitzairen.

Berrerabiltzekoak uzteko edukiontzien kopurua handitzea


Berrerabiltzekoak uzteko lehendik zeuden hogeitau edukiontziez gain, beste bost jarri ziren 2014an, oihalezkoak, oinetakoak, liburuak eta tresna elektriko nahiz elektriko txikiak jasotzeko. Nabarmena izan zen jasotako materialen gehikuntza, % 80tik gorakoa; 2013an bildutako 268 tonen aldean, 485 tona bildu ziren 2014an.

HIRIGINTZA ETA LURRALDEA



JASANGARRITASUNENKO HELBURU OROKORRA:

- HIRIKO SISTEMEK SORTZEN DUTEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA TXIKITZEA
- HIRIKO BIZI KALITATEA HOBETZEA



20. Oinarrizko zerbitzuetara eta gune publiko irekietara iristea

Biztanleek erabilera publikoko guneetarako eta oinarrizko zerbitzuetara erraz iristea izatea funtsezkoa da hiritarren gutxieneko bizi-kalitatea bermatzeko. Gainera, oinarrizko zerbitzuak etxetik hurbil izateak desplazamendu gutxiago egin behar izatea esan nahi du. Osasunaren eta elikagaien arloetan zerbitzurik ez izateak nolabaiteko bazterketa sortzen du behar sozialei aurre egiteko orduan.

Oinarrizko zerbitzuetatik eta irekitako gune publikoetatik, hurrenez hurren, 300 eta 500 metro baino gutxiagora bizi diren biztanleen ehunekoaren bitartez adierazten da irisgarritasuna.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen-Informazioko Sistema (SIAM). *Udaleko beste hainbat Sail*
Joera desiragarria: gehitzea
Neurtze aldia: urtero

	< 300 m				< 500 m			
	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
Gune publiko irekiak (%)	100	100	100	100	100	100	100	100
Hezkuntza-zerbitzuak (%)	83,32	83,59	82,29	85,94	94,47	94,12	93,82	95,38
Kirol-zerbitzuak (%)	82,75	82,27	82,15	83,56	94,25	93,84	94,47	95,13
Osasun-zerbitzuak (%)	47,35	48,31	48,90	49,02	79,19	81,51	81,04	80,88
Dendak (%)	96,50	96,34	96,06	95,64	98,13	97,91	97,80	97,65
Kultur zerbitzuak (%)	69,31	68,48	76,01	76,78	85,98	85,09	91,79	91,35
Garraio kolektiboa (%)	96,62	97,99	98,12	98,22	98,63	99,56	99,58	99,60
Birziklatzea ¹ (%)	97,80	97,54	99,12	98,91	98,43	99,56	99,84	99,85
Farmaziak (%)	87,09	86,24	85,71	83,75	94,81	94,41	94,04	92,64
Finantza-entitateak (%)	86,85	85,93	83,83	83,01	93,64	92,91	92,25	91,88

21. Lurraren erabilera jasangarria

Jasangarritasunaz ari bagara, lurra ahalik eta gehien babestu beharreko funtsezko baliabidea da. Lur baliotsuenak eta emankorrenak babestu egin behar dira, euren kalitatea murriztuko duten aprobetxamendu eta erabilerak saihestuz. Eraikinen kasuan, erabilera horiek lurraren galera ia itzulezina ekar dezakete.

Lurralde- eta hirigintza-kudeaketa egokiek lurren kontserbazioa eta biziberritzea zaindu behar dituzte, lurraldeari bere hartzeko ahalmenaren arabera erabilerak esleitzuz, gune baliotsuenak babestuz, ingurumen-balio txikieneko lurretan modu kontzentratuan eraikiz, hiriko hutsuneak berraprobetxatuz eta lur kutsatuak berreskuratu eta biziberritzeko politika egokia aplikatuz.


¹ - Birziklapen zerbitzuak ondokoak dira: bilketa selektiboko edukiontzia, garbiguneak, puntu berdeak eta bilketa pneumatikoko buzoiak.

Adierazle honek lurraren erabileran jasangarritasun-mailari buruzko ikuspegi integratua eskaintzen duten hainbat aspektu jasotzen ditu.

21a. Lur artifizializatua eta urbanizagarria

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Hirigintza eta Plangintza Saila eta Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Neurtze aldia: bi urtean behin





21b. Lur abandonatuak eta potentzialki kutsatuak

Datu iturria: IHOBE eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: bi urtean behin




21c. Lurraren erabilera-intentsitatea

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Hirigintza Saila eta Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: bi urtean behin




● Biztanle dentsitatea erxebizitzan lurrean ● Biztanle dentsitatea lur artifizializatuan

21d. Garapen berrien kokapena

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Hirigintza Saila eta Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Joera desiragarria: eraikitze berrien gehitzea lur artifizializatu eta abandonatuetan

Neurtze aldia: bi urtean behin



● Garapen berriak lur artifizializatuan ● Garapen berriak lur birjinean ● Garapen berriak lur abandonatuatan

Garapen berriak	2009	2011	2013	2015
... lur birjinean	3.505.392 m ²	471.500 m ²	283.500 m ²	248.546 m ²
... lur artifizializatuan	710.866 m ²	1.715.900 m ²	1.069.300 m ²	391.459 m ²
... lur abandonatuatan	47.901 m ²	27.900 m ²	25.100 m ²	13.954 m ²


21e. Hiri-azalaren zaharberritzea

• Obra handiko lizentzia duten eraikin zaharberrituen kopurua

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Eraikuntzen Zerbitzua

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



• Berreskuratutako lur abandonatu eta kutsatuen azalera

Datu iturria: IHOBE eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: Urtean behin

	2009	2011	2013	2015
Lur abandonatu berreskuratutak	61.790 m ²	25.055 m ²	131.636 m ²	13.954 m ²
Lur kutsatu berreskuratutak	156.346 m ²	184.997 m ²	Sin datos	Sin datos


21f. Landa-espazioa eta espazio naturala

• Babestutako azalera udalerriko azalera osoarekiko

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: Urtean behin




• Ingurumen leheneratzeko edo hobekuntza ekologikoko ekintzak jasan dituzten lurrak

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Espazio Publikoa eta Natur Ingurunea Zerbitzua eta Ingurugiro Galetarako Ikastegia

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Autobus geltoki berriaren inaugurazioa

2015eko martxoan inauguratu zen Gasteizko autobus geltoki berria. Geltoki berriak atondo handia du, kafetegia eta jatetxea, saltokia, zaindegia, bulegoak, autobusentzako 25 nasa, eta autobus geltokiari dagozkion zerbitzu propio guztiak: txartelak saltzeko leihatilak, informazio-zerbitzua, 5 informazio-pantaila eta bes-telako udal informazio puntuak. Kanpoaldean, plaza publiko handi bat (8.000 metro koadro), haurrentzako jolaslekua kafetegiaren aurrean, eta berdegunea ditu. Orotara, autobus geltoki berriaren eraikinak eta inguruak 26.650 metro koadro hartzen dute. Halaber, lurpeko aparkalekua du, ibilgailuentzako 302 plaza dituen, horietako 10 mugikortasun murriztuko pertsonentzat; 15 ibilgailuentzako aurreinstalazio elektrikoa ere jarri da, horietako 2, mugikortasun murriztukoentzat. Bizikletentzako 94 leku eta motorrentzako beste 13 ere baditu, gehi motor barentzako aurreinstalazio elektrikoa. Kanpoaldean bizikletak aparkatzeko 105 leku jarri dira, aldi labur batez aparkatzeko lekua 6 ibilgailuentzat, eta 3 taxi geltoki, 18 ibilgailuentzako lekuarekin; gainera, mugikortasun murriztuko pertsonentzako 3 aparkaleku daude.

Salburuko gizarte etxea dagoeneko martxan

Salburuko gizarte etxea Bratislava eta Iliada ibilbideen artean eraikitzeko lanak 2013ko maiatzean hasi ziren, eta 2015eko maiatzean ireki zen. Salburuko gizarte etxeak atal hauek ditu: sotoan, kirolearako pista, gimnasioak, esgrima aretoa, dantza lantegia, boulderra eta rokodromoa, eta aldagelak; beheko solairuan, herriarrei laguntzeko bulegoa, elkartzeko aretoa, kafetegia, ekitaldi-areto (210 besaulki), gazte kluba, ludoteka, eta kiroldegira ematen duen harmaila finkoa; 1. solairuan, liburutegia, familia-liburutegia, ikasteko gela, infoteka, lantegiak, zonako gizarte zerbitzuaren eta etxeko teknikari taldearen bulegoak; 2. solairuan, igerilekuak —2 igerileku bereiz, bat helduentzat eta beste bat haurrentzat. Ekipamendu horren aurrekontu osoa 8.903.072 € izan da.

Hiriko azpiegitura berdea

2015ean Gasteizko Udalak Azpiegitura Berdea deritzon proiektua aplikatzeari ekin zion, Lakuabizkarrean; udalaren ingurumen plan berriak hiri paisaia aldatzea aurreikusi du, naturaren onurak hiri barruan baliatuz. Proiektu pilotu hori auzoko 24 lekutan garatu da, berdeguneak eta lursail hutsak barne, helburu hauekin: hiriko berdeguneen dibertsitate biologikoa handitzea; leku horien arteko konektibitate ekologiko eta espaziala hobetzea; airearen kalitatea hobetzea; klima aldaketara egokitzea; gerizpeak sortzea eta klima erregulazioa areagotzea, eta erabiltzen ez diren lurzati hutsen balioa handitzea.

Bi fasetan gauzatu dira: lurra mugitzea eta landaketa. Lehen fasean 11.000 m³ lur gehitu dira; bigarrenan, 20.000 landare inguru landatu dira, gehienak zuhaixkak, 25-30 espezie ezberdinetakoak.

Ingurumena leheneratzeko eta hobekuntza ekologikorako lanak Eratzun Berdean

2012an, Gasteizko Udalak "Etorkizunaren sustraiak" proiektua abiarazi zuen, zeinaren helburua baitzen hiru urtean 250.000 zuhaitz eta zuhaixka landatzea Eratzun Berdean, herritarren eta enpresa babesleen laguntzarekin. 2015ean lan hauek egin ziren:

- Landaketak Abetxuku inguruan: 1.050 zuhaitz eta zuhaixka landatu ziren Zadorra ibaitik gertu. Guztira 3.707 m² lehengoratu ziren.
- Landaketak Olarizu parkean: 1.287 zuhaitz eta zuhaixka landatu ziren, Europako basoen arboretoan goi mendietako pinudien bilduma osatzeko. Landatutako lursailak 3.374 m²ko azalera du.
- Landaketak Elgeta kalearen ondoko udal espazio librean: 300 zuhaitz eta zuhaixka landatu ziren, espaloiaren ertzean heskaia osatuz. Guztira 1.280 m² lehengoratu ziren.
- Zapardiel ibaiaren ibilgua ibaiaren ingurumen aldetik hobetzea Zumabide kaletik Batan errekaraino: ibaiertzeko basoetako 1.092 zuhaitz eta zuhaixka landatu ziren bi ertzeetan. Guztira 3.757 m² lehengoratu ziren.

Ingurumena leheneratzeko eta hobekuntza ekologikorako lanak nekazaritza eremuan

Jarduera hauek egin ziren 2015ean udalerriko nekazaritza-eremuan ingurumena lehengoratu eta hobekuntza ekologikoa lortzeko:


- Baso-suteek Uribarri Arratzuko mendietan erretako eremuak lehengoratzea. Bakantze-lanak egin ziren, eremu horietan birsorkuntza naturala bultzatzeko.
- Baso-landaketei dagokienez, espezie autoktonoetako 1.367 zuhaitz landatu ziren ingurune hondatuak egokitu eta oneratzeko, zehazki, Lopidako aintziraren ertzak, Lemandako ezpondak, Jundiz muinoa, eta Uribarri Dibiña, Otogoien, Mendoza eta Forondako garai bateko zabortejiak.
- Lurzoru hondatua lehengoratzea Jundizko lursail esperimental batean. Proiektuaren bidez, berdegune baten lurzoru hondatua berreskuratu nahi da Jundizko industrialdean, bi jarduera batzen dituen metodo bat erabiliz: lehenengo, lurri Jundizko biokonpost lantegitik hartutako material bioegonkortua erantsi, zuzenketa organiko gisa; ondoren, energia sortzeko laboreak sartu, pixkanaka lurra birsortzeko (2015ean koltza landatu da). Jarduerak Eusko Jaurlaritzaren onespena du, "R10 operazio" motako proiektu pilotu gisa. Gainera, lhobek ideia berritzaileei laguntzeko 2015eko Berrigurumena deialdiaren bidezko kofinantzaketa du.

Kutsatuta egon daitekeen leku baten kalitatea ikertzea

Jundizko industrialdeko mendebaldean dagoen leku baten lurzorua kalitatea ikertu da. Industrialdeko mendebaldean dagoen lursail publiko bat da, 92.800 m²-ko azalera duena, eta gutxi gorabehera 51.540 m³ isurketa bolumena. Jundizko industrialdeko mendebaldean zeuden nekazaritzarako lursail batzuetatik legarra ateratu zen hura urbanizatzeko, eta geroago eraipen eta hondeaketetan aterako zenbait multzo metatu zen bertan. A-1 autobiareneko ondoan dauden zona horiek berdegune gisa erabiltzea aurrekusten du udal planeamenduak, baina erabili gabe egon dira, eta ondoz ondoko inpaktuak jasan dituzte; horren ondorioz, hondatuta geratu dira, eta eragin bisuala eta ingurumenarekikoa handia da.

Paisaia ibilbidea Jundiz muinoan


Jundiz muinoan paisaia ibilbidea osatu eta ezagutaraztean datza egitasmoa, inguru horrek duen garrantzia —paisaiarengatik, bertan izandako gertakari historikoengatik, eta konektore ekologiko gisa— nabarmentzeko. Ibilbide zirkularra da, Inglesmendi izeneko tontorraren inguruan, eta bost begiratoki tematikok osatzen dute; Ariniz zein Margaritatik irits daiteke ibilbidera. Ibilbidearen luzapen batek Jundiz gainera igotzeko aukera ematen du, non Gasteizko Batailari buruzko azalpenak dituen mahai bat baita. Izan ere, ibilbide hori kulturarekin eta ingurumenarekin lotutako turismoaren eredu bihurtu nahi da, eta horregatik liburuxka berezi bat eta ibilbide autogidatua prestatu dira, eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ibilbide naturalistikoa antolatzen du urtero. Gainera, Gasteizko Batailarekin lotutako ibilbide berri hori sortu delarik, beste baliabide bat gehitzen zaio Hiri Napoleonikoen Europar Sareari. Gasteizko Turismo Zerbitzuak batailaren bigarren mendeurrenaren inguruan lanean aritu diren taldeei ibilbidean esku hartzeko aukera eman nahi die.



NATURA ETA BIODIBERTSITATEA

JASANGARRITASUNEKO HELBURU OROKORRA:

- GIZA JARDUERЕК SISTEMA NATURALEN GAINEAN DUTEN ERAGINA MURRIZTEA
- NATURA BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNGARRIA SUSTATZEA
- INGURUNE HONDATUEN ONERATZEA SUSTATZEA



22. Biodibertsitatearen kontserbazio egoera Vitoria-Gasteizko udalerrian (hegazti ugartasunaren indizea)

Ikuspuntu ekologikotik, lurralde baten kontserbazio egoera biodibertsitate mailaren arabera neurtu daiteke, bertan dauden animalia- eta landare espezieen kopurua eta ugartasuna kontuan hartuz. Batzuetan, espezie guztiak zenbatzeko zailtasunak talde ordezkari bat biodibertsitate multzoaren eredu gisa aukeratzea eskatzen du.

Adierazle berri hau ekosistema bakoitzeko hegazti biodibertsitatean oinarrituta dago.

Hegazti ugartasunaren indizea

Datu iturria: CEA

Joera desiragarria: gehitzea

Neurte aldia: urtero

Udal adierazlea Europako azken erreferentziako azken aldaketei egokitu zaizkio, eta horrek funtsean bi azterketa talde berri sortzea esan nahi du: zuhaixka inguruetako hegaztiak eta hezeguneetako hegazti txikiak.

Azpialdeak	Erref. balioa										
		2005	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Nekazaritzakoak	100	69	63	86	87	104	95	75	75	79	
Zuhaixkakoak	100	139	128	167	80	69	92	77	57	69	
Basokoak	100	72	80	122	98	93	62	100	62	85	
Hezeguneetako paseriformeak	100	144	183	122	153	192	87	133	100	125	
Hirikoak	100	109	116	182	152	125	139	129	159	64	

Azpialdeak	2005-2014 Aldaketa %		Estatistika-joera
	2005-2015		
Nekazaritzakoak	-21		Egonkorra
Zuhaixkakoak	-31		Neurrizko beherakada
Basokoak	-15		Ezezaguna
Hezeguneetako paseriformeak	25		Ezezaguna
Hirikoak	-36		Ezezaguna

23. Nekazaritza ekologikoko teknikak jarraitzen dituzten lursailak

Nekazaritza ekologikoa laborantza produktuak eskuratzeko modu jasangarria da, hau da, ingurumenaren babes eskakizunekin bateragarria dena. Izan ere, birziklapena eta baliabide berriztagarrien erabilera sustatzen ditu, Naturak berak izarriak eta gaixotasunak kontrolatzeko dituen bideak errespetatzen ditu, pestizida, herbizida eta ongari kimikoak erabiltzea saihesten du, etab. Azken finean, ingurumenaekin begirunez jokatzeko duten nekazaritza praktikatzen oinarritutako ekoizpen sistema bat osatzen du.

Nekazaritza ekologikoaren erabilera nahiko berria eta oso urria da gure lurraldean; aitzitik, ingurumena hobetzeko konpromiso sendoa erakusten du nekazarien aldetik, eta horregatik Administrazioen laguntza merezi du.

Datu iturria: ENEEK- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero

2011	2012	2013	2014	2015
371.600 m ²	334.400 m ²	630.000 m ²	925.000 m ²	957.000 m ²

24. Ibaien egoera ekologikoa (BMWP' indizea)

Ibaietan bizi diren espezie akuatikoen baloraziotik abiatuz, BMWP' adierazle biotikoak ibai-ekosistemen kalitatea neurtzeko aukera ematen du. Espezie bakoitzak kutsadura jasateko duen ahalmenaren arabera, BMWP' adierazleak balio jakin bat ematen dio. Horrela, gehien jasaten dutenek puntu gutxiago dituzte. Lortutako puntuazio-mailaren arabera, kalitate jakin bat esleitzen zaio aztertutako ur-ekosistemaren atalari.

Udalerriko ibai sarearen kalitatea hiru puntutan neurtu da: Zadorra ibaian Arroiabe parean (Uribarri-Ganboako urtegiaren irteeran), Zadorra ibaian Tresponden (Gas-teizko udalerraren irteeran) eta Alegría ibaian Ilarratza parean (hiriaren sarreran).

Datu iturria: Agencia Vasca del Agua-Uraren Euskal Agentzia

Joera desiragarria: hobetzea

Neurtze aldia: urtero

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
ZAD-522 (Trasponte)	III	III	IV	III	II	III	IV
ZAL-150 (Dulantzi)	III	III	II	III	III	II	II
ZAD-460 (Zuhatzu)	II	II	III	III	II	III	II
ZAD-338 (Mendibil)	-	II	II	III	II	II	II

la=Oso ur garbiak; Ib=Kutsatu gabeko urak; II=Kutsadurak zerbait eragindako urak; III=Kutsatutako urak; IV=Kutsadura handiko urak; V=Izugarri kutsatutako urak

Adierazleak hobetzeko ekintza eta jarduerak

Gasteizko udalerriko Biodibertsitatea Kontserbatzeko Estrategiaren behin-betiko onespena, eta lehenengo ekintzak martxan jartzea.

Biodibertsitatea Babesteko Tokiko Estrategia idatzi eta ezartzeko konpromisoa sartu zuen Gasteizko Udalak 2010-2014 urteetarako 21 Agendaren Tokiko Ekintzarako Planaren edukien artean. Udal zerbitzu teknikoek kontrastatze-lanak egin ondoren, partaidetza-prozesu bati ekin zitzaion, Ingurumen Sektore Kontseiluaren baitan, zirriborroa eztabaidatzeko. Zenbait kidek, batez ere UAGAK —Arabako Nekazari eta Abeltzainen Batasuna— eta *Grupo Alavés de Defensa y Estudio de la Naturaleza* (GADEN) elkarteak hainbat kritika eta ohar egin zituzten, eta horietako batzuk agirira eraman ziren. Beste erakunde batzuk ere lagundu zuten agiria aberasten, hala nola Arabako Natur Institutuak, *Sociedad Española de Ornitología* elkarteak eta APUS elkarteak. Partaidetza-prozesu horren ondoren, 2015eko otsailean, Gobernu Batzarrak onetsi zuen dokumentua.

Onetsi ondoren, bertan jasotzen diren ekintzetako batzuk gauzatu dira:

- Eusko Jaurlaritzarekin eta AFArekin batera, udalerrian ditugun Natura 2000 Sareko hiru espazioen babes eta kudeaketa egokirako dokumentuak lantzen parte hartu da: Salburua, harizti-irlak eta Gasteizko Goi Mendiak. 2015eko udazkenean, behin betiko onespena eman zitzaion Salburuari dagozkionei.
- Basoko hainbat hezegune sortu dira; nabarmentzekoak, bi Txarakako harizti babestuan eta beste bat Aranduiako hariztian. Kontserbazioaren aldetik interes handia duten eremuetan kokatuta daude guztiak ere, eta mehatxatuta dauden espezieak faboratzeko diseinatu dira, hala nola baso-igel jauzkaria.
- Hiri-esparruan, azpiegitura berdeen alorreko proiektu pilotu bat jarri da martxan Lakua auzoan, besteak beste biodibertsitatea faboratzeko hainbat ekimen bere baitan hartzen dituena. Zentzu horretan, aipatzeko da lore-multzok sortu direla, faunarentzako hainbat babesleku jarri direla —gabioiak, hontzentzako eta saguzarrentzako babes-kutxak eta beste—, bi hezegune txiki sortu direla, heskaikak egin direla espezie autoktonoekin eta abar.

Biodibertsitatearen azterketa eta jarraipena

Zenbait talde eta espezieren bilakaerari buruzko azterketak egin ziren 2015ean:

- Gasteizko udalerriko mehatxatutako flora espezieen eta kontserbatzeko interesa dutenen jarraipena.
- Gasteizko orkidea-populazioen jarraipena.
- Gasteizko odonatu-populazioen jarraipena.
- Gasteizko eguneko tximeleten jarraipena.
- Gasteizko hiri-hegaztien jarraipena.
- Salburuko parkean hegaztiei eratzuna jartzeko kanpaina, 2015. urtean.
- Biodibertsitatearen kontserbazio-egoeraren adierazlea, Gasteizko hegazti ugaltzaileen jarraipenean oinarritua. 2015. urtea.
- Salburuko hezeguneetako hegaztien hilean hileko erroldak.
- Ur-hegazti negutarren nazioarteko erroldan parte hartzea.
- Ur-hegazti habiagileen erkidegoko erroldan parte hartzea.


- Salburuko eta Zadorra ibaiko apoarmatu autoktonoen populazioaren ezaugarriak finkatu eta apoarmatu exotikoenak kontrolatu ziren 2015ean.
- Gasteizko udalerrian dagoen baso-igel jauzkarien populazioaren jarraipena.
- Bisoi europarraren eta bisoi amerikarraren egoera Gasteizko Eratzun Berdean.
- Lakua auzoko eguneko tximeleten jarraipena (2015).
- Salburuko kontserbazio-eremu bereziko saguzarrentzako babes-kutxen okupazio-mailaren azterketa. 2015 urtea

LIFE LUTREOLA SPAIN proiektuan parte hartzea


LIFE laguntza bat eman zuen Europako Batzordeak, 2014ko ekainetik 2018ra bitartean bisoi europarraren kontserbazio egoera hobetzeko hainbat ekintza bideratzeko, munduan mehatxatuen dagoen haragijale txikia izaki. Gasteizko Udala proiektu horretako bazkidea da, beste administrazio batzuekin batera —hiru aldundiak eta beste—. 2015ean, bisoi amerikarra kontrolatzeko ekintzak egin ziren, Salburuan kokatutako askatu aurreko kaiola tzarrak konpondu ziren —bisoi europarraren populazioa sendotzeko jardueraren bat bidera bailiteke 2017an—, eta sentsibilizazioaren eta ingurumen-hezkuntzaren arloko hainbat ekintza abian jarri ziren. 2015ean jarritako tranpek aukera eman dute jakiteko bisoi europarraren ale gutxi batzuk badirela bertan, eta gero eta gutxiago direla, aldiz, espezie inbaditzailekoak, bisoi amerikarrak. Pozgarriak dira emaitza horiek, hurrengo urteetan espezie autoktonoaren sendotze demografikoari ekiteko aukera izan litekeela erakusten baitute.

Wetland Link International ingurumen-hezkuntzako zentroyen munduko sareko kide izango da Ataria aurrerantzean

Wetland Link International-eko (WLI) kide bihurtu zen Ataria Interpretazio Zentroa 2015ean. Izen horren azpian, Ramsarreko Hitzarmenak bultzatutako hezeguneei buruzko hezkuntza-zentroyen munduko sarea biltzen da, Erresuma Batuko Wildfowl and Wetlands Trust (WWT) erakundeak koordinatuta. Mundu osoko 350 kide ditu WWT sareak gaur egun, eta era guztietako hezeguneeak biltzen ditu, non bisitarietzako instalazioak dauden, hala nola ingurumen-hezkuntzako zentroak, bertatik bertara ikertzeko zentroak edo historia naturaleko museo interaktiboak. Sare horretako kide izateko, bai zentroak, bai hezeguneeak berak gizakien eta basabizitzaren arteko interakzioa ahalbidetu behar dute, baita komunikazio-, hezkuntza- eta kontzientziazio-ekintzak burutu ere, hezeguneearen kontserbazioa lortzeko helburuetan lagunduko dutenak.




INGURUMEN OSASUNA ETA ARRISKUAK



JASANGARRITASUNEN HELBURU OROKORRA:

- EDOZEIN JARDUERAK OSASUNARI ETA INGURUMENARI DAKARZKIETEN ARRISKUAK GUTXITzea



TABAKISMOA

Tabakoak osasunean duen eragina da hiriko biztanleek jasan beharreko ingurumen-arrisku garrantzitsuenetako bat. Dударik gabe, ohitura sozial hedatuenetarikoa bat da eta modu zuzenean eragiten dio erretzen ez duen biztanleriaren zati handi bati.

25. Erretzaileen ehunekoa (ohikoak edo noizbehinkakoak)

Datu iturria: Ingurumen Osasuna Zerbitzua

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: -

Datuen jatorria: Droga-menpekotasunen Institutua. Deustuko Unibertsitatea. Datuen oinarria: Euskadi eta Drogak 2012. Osasun Saila. Eusko Jaularitza.


2012 (15-74 urte bitarteko biztanleria)			
Tabakoaren kontsumoa	%	Orotara pertsonak Vitoria-Gasteizen	Orotara pertsonak EAEen
Kontsumo esperimentala / behin edo behin bizi zanean zehar	54,4	101.607	896.642
Kontsumoa azken aldian / azken urtean	31,2	58.275	513.910
Gaur egungo kontsumoa	29,3	54.726	483.628
Eguneroko kontsumoa	25,7	48.002	423.676
	100,0	186.778	1.648.942

BIDE-SEGURTASUNA

Gero eta gehiago ibilgailuen mende dauden hiriak eredu bihurtzeak, aldaketa garrantzitsuak eragiten ditu hirien fisonomian eta hiritarren mugikortasun-ereduetan. Garraio-azpiegiturak sarbideak moztu eta zaildu, distantziak handitu eta, beste garraio-bide batzuen kalterako, ibilgailu pribatuaren erabilera indartu egiten dute. Horrela, areagotu egiten dira bide-segurtasuneko arazoak.


26. Hiri barruko trafiko-istripuen kopurua urteko eta 1.000 ibilgailuko

Datu iturria: Udaltzaingoa
Joera desiragarria: gutxitzea
Neurtze aldia: urtero



27. Hiri barruan harrapatutako oinezkoen kopurua urteko eta 10.000 biztanleko

Datu iturria: Udaltzaingoa
Joera desiragarria: gutxitzea
Neurtze aldia: urtero



Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Bide Hezkuntza

Udaltzaingoa bat egin du Eusko Jaurlaritzak sustatutako Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoarekin, eta urtean zehar egiten diren kontrol kanpainen hartzen du parte. 2015ean harrapaketen aurkako prebentzioa eta ziklomotor eta bizikleten baldintza teknikoaren kontrola izan dira nabarmengarrienak.

Ikasleen autobabesa. Bisitaldia eta jarduera praktikoak Udaltzaingoaaren pistan; horren bidez akatsak, hutsak, zalantzak, trebetasunak eta jarrerak antzeman daitezke. Oinez eta bizikleta nahiz triziklo elektriko gainean hainbat joan-etorri egiten dira ariketa modura. Ondoren, saio teorikoa egiten da ikastetxean, aurreko jardueran oinarritua, zalantzak argitu, hausnarketa sustatu, informazioa eman eta jarrera positiboak sustatzeko asmoz. Trafikoari eta bide segurtasunari buruz jarre-
ra eta balio egokiak sustatzea da helburua, eta arriskuak saihestea.

“Seguru bizi” marrazki lehiaketa. Oinezko, txirrindulari eta ibilgailuko bidaiariekin lotutako arriskuei buruzko artelanak egitean datza jarduera. 10 eta 12 urte bitarteko umeei bidean aurki ditzaketen arriskuei buruzko hausnarketa sustatzea da helburua.

Bizikleta hirian. Jarduera hori Mendebaldea ikastetxeak eskatuta egin da. Udalerriko kaleetan gertatutako istripuak analizatu dira, bizikletaz ibiltzeak dakartzan arriskuak aztertuz. Trafiko araudia betetzea txirrindulariaren segurtasunerako ezinbestekoa dela azpimarratu da.

Osasunerako hezkuntza

2014-2015 ikasturteko bigarren edo hirugarren hiru hilekoetan, 41 ikastetxetako 106 gelatako 2.444 ikaslek hartu zuten parte “Ondo gosaldu”, “Fruta eta barazkiak, 5 aldiz osasungarri” eta “Hamaiketako eta askaria, indarrak berreskuratuzeko” programetan; 2015-2016 ikasturteko lehen hiru hilekoan, berriz, 14 ikastetxetako 35 gelatako 802 ikaslek hartu zuten parte “Ondo gosaldu” programan. Ingurumenaren eta Osasun Publikoaren Saileko Osasun Publikoaren Zerbitzuak antolatzen ditu programak, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeei zuzenduta, gazteek elikadura ohitura osasungarriak bereganatu ditzaten.

2014-2015 ikasturteko bigarren eta hirugarren hiru hilekoetan, orobat, 16 ikastetxetako 41 gelatako 954 ikaslek parte hartu zuten Ingurumenaren eta Osasun Publikoaren Saileko Osasun Publikoaren Zerbitzuak antolatutako “Arazorik ez baduzu nahi, ibil zaitez garbi eta txukun” eta “Zain itzazu posturak” programetan. Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ekimena da, haurrek norberaren nahiz ingurunearen higienarekiko jokabide eta ohitura egokiak bereganatu ditzaten, eta jarrera egokiak hartu.

2014-2015 ikasturteko bigarren eta hirugarren hiru hilekoetan, 8 ikastetxetako 28 gelatako 706 ikaslek parte hartu zuten parte “Egizu lo ondo: hobeto biziko zara” programan, zeina Ingurumenaren eta Osasun Publikoaren Saileko Osasun Publikoaren Atalak Txagorritxuko Arabako ospitale unibertsitarioko Lo Atalarekiko lankidetzan antolatzen baitu. Ekimena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago, eta haurrek loaren inguruko jarrera eta ohitura egokiak bereganatzea du xede, horrek garapenean eta ikaskuntzan duen eragina handia izaki. Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saileko Osasun Publikoaren Atalak antolatutako “Haur istripuak” izeneko programan 17 ikastetxetako 60 gelatako 1.246 ikaslek hartu zuten parte 2014-2015 ikasturtean. Haur Hezkuntzako 3. mailakoei eta Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3., 4. eta 5. mailakoei zuzenduta dago ekimen hori, eta ikasleek istripu-arriskuak identifikatzen jakitea du xede, eta horiei aurre egiteko ohiturak bereganatzea.

2014-2015 ikasturteko lehen hiru hilekoan, 47 ikastetxetako 188 gelatako 4.094 ikaslek programa hauetan hartu zuten parte: “Baratzean nire lagunekin”, “Osasunkume, bizitzaren abentura”, “Hordago! Drogarik gabe bizitzaren erronka”, “Tabako mendekotasunari aurre hartzea”, “Alkohol mendekotasunari aurre hartzea”, “Kalamu mendekotasunari aurre hartzea”, “Legez kanpoko drogak eta psikofarmakoak” eta “Errealitate birtuala”. Eskolako prebentzio orokorren barruko programak dira, eta bizi-ohitura osasungarrietan hezte eta trebetasun eta baliabide pertsonalak eta sozialak garatzea da helburu nagusia. Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezkoaren Ondoko Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago.

2015-2016 ikasturteko lehen hiruhilekoan, 5 ikastetxetako 10 gelatako 252 ikaslek parte hartu zuten “Legezko eta legez kanpoko drogen arriskuak gutxitzea” programan. Eskolako berariazko prebentzioaren barruko programa da hori, zeinen helburu nagusia mendekotasun-jokabideetatik babesteko faktoreak sustatu eta horiekin lotutako arrisku faktoreak gutxitzea baita. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezkoaren Ondoko Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago.

Gasteiz Hiri Osasungarrien Espainiako eta Europako sarean


2013-2018 urteetarako Gasteizko Osasun Garapenerako II. Planean —Osasunaren Mundu Erakundearen Europako Hiri Osasungarrien Sarearen irizpideen arabera landutakoa— sartutako jardueretan lan egiten jarraitu zen 2015ean. Arlo haueetan jardun da: i) laguntzeko eta zaintzeko gizarte inguruneak, ii) bizitza osasuntsua eta osasunaren inguruko testu idatziak ulertzeko gaitasuna, iii) hiri ingurune fisikoa. Era berean, Gasteizek behar diren eskabidea eta agiri teknikoak bidali zituen Osasunaren Mundu Erakundera (OME), Europako Hiri Osasungarrien Sarearen VI. fasean hiri kide izendatu dezaten. Orobat, Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioaren baitako Espainiako Hiri Osasungarrien Sarearen batzorde betearazle eta teknikoan parte hartzen jarraitu du.

2015-2019ko Mendetasunen Plana


2015ean, “Gasteizko hirian mendetasunak eta portaeraren antzeko desorekak murrizteko IV. plana” onetsi zen. Mendetasunei buruzko sailarteko mahaian eta arlo horretan diharduten Osasun eta Kontsumo Kontseiluko herritar elkarteen mahaian jorratu zen zirriborroa.

Nekazaritzako Elikagaien Estrategia

2015ean Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia lantzen hasi zen. Elkarte zein banakoekin hainbat urtez aritu ondoren, orain Gasteizek elikagaien alorrean etorkizun iraunkorragoa lortzeko egin duen apustua indartu nahi da, ekintza plan bat landuz. Nekazaritzako elikagaien sistema sustatzerakoan Gasteizko Udalak egiteko hauek izango ditu: hirigintza plangintza hobea (nekazaritza lurra babestea), elikagaien kudeaketa publiko iraunkorragoa (udal baliabideetan produktu lokal eta ekologikoen kontsumoa sustatzea), elikagai osasungarriagoak eta tokiko ekoizpena gehiago kontuan hartzen duten kontsumitzeko ohiturak sustatzea, eta udalaren lantza funtsak baliatzea nekazaritza ekologikoko ekimenak abian jartzeko. 2016an Estrategia lantzen jarraituko da. www.vitoria-gasteiz.org/vgalimenta




INFORMAZIOA, HEZKUNTZA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA



JASANGARRITASUNEN HELBURU OROKORRA:

- GARAPEN IRAUNGARRIARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURA DAGOELA ETA ZABALDU EGITEN DELA BERMATZEA
- ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUETAN HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA
- IRAUNGARRITASUNAREN ARLOKO HEZKUNTZA BULTZATZEA



28. Ingurumen informazioari buruzko kontsulta kopurua

Ingurumen informazioa eskuratzeko eskubidea erregulatzen duten legezko xedapenek honela definitzen dute ingurumen informazioa: “modu idatzian, ahozkoan, ikusteko moduan edo datu-base moduan uraren, airearen, luraren, faunaren, horiei eragiten dieten edo eragin diezaieketen jardueren eta horiek babestera bideratutako jarduera eta neurrien egoerari buruz eskuragarri dagoen edozein informazio”. Era berean, administrazio publikoei, udalei barne, jendeak eskatzen dien informazio guztia emateko obligazioa ezartzen zaie.


Adierazleak bi azpiadierazle ditu¹: lehenak ingurumen informazio eta dokumentazioa Internet bidez edo CEako liburutegian eskuratzeko aldiak zenbatzen ditu, eta bigarrenak Udaleko zerbitzu teknikoek jaso eta erantzun dituzten kontsultak neuritzen ditu.

28a. Ingurumen informazio edo dokumentazioaren eskuratzekoak

Datu iturria: Ingurumen Informazioko Sistema (SIAM), udal webgunea eta CINDA (Ingurumen Informazio eta Dokumentazioko Zentroa)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero




28b. Udaleko zerbitzu teknikoei zuzendutako ingurumen kontsulten kopurua

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila, CEA eta Informazioaren Teknologien Saila (Herriarrei Laguntzeko Bulegoak, Telefono bidezko Arreta Zerbitzua eta Hiritarren postontzia)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurte aldia: urtero




29. Eskola-umeen parte hartzea Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako ingurumen-heziketako jardueretan¹

Gasteizko Udalak urtero eskaintzen dituen ingurumen-heziketako jardueretan parte hartzen duten eskola-umeen kopurua, abian jarritako programa hezitzaileen finkapenaren eta eskola-umeen kolektiboak ingurumenarekiko duen konpromiso-mailaren adierazle da.

Datu iturria: Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, AMVISA eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzua

Joera desiragarria: gehitzea

Neurte aldia: urtero



1- Eskolako Agenda 21ean dagoen parte hartzea erantsi zaio adierazle honi. Jarduera hau 2003-2004 ikasturtean hasi zen.

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Hiri baratzen proiektua

IGIren bitartez, Gasteizko Udala hiri baratzezaintza hirian eta hiri ingurunean (Eraztun Berdea) landu dadin sustatzen ari da, hiriko azpiegitura berdea osatu, elikagaien tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatu eta elikadura osasungarria zein aisialdi aktiboa bultzatzeko xedez.

Orobat, herritarrek bertako elikagaien eta elikagai ekologikoen ekoizpenak eta kontsumoak duten garrantziaz kontzientzia har dezaten eta Gasteiz inguruan hori ahalbidetzen duten proiektuetan parte har dezaten lortu nahi du proiektuak. Zailtzarrik gabe, horrelako ekimenek gure gizartean oinarritzko zenbait kontzeptu zabaltzen lagundu behar dute, besteak beste, elikadura-burujabetza, tokiko produktuen ekoizpena, elikadura osasungarria eta osasunerako hezkuntza.

http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&idioma=es&uid=u7aa80ad4_14868c61a75__7f95

Mugikortasun Iraunkorraren Foroa

2015eko abenduaren 22an, Mugikortasun Iraunkorraren Foroaren informazio saioa egin zen, Gasteizen ahalmen handiko irtenbideak baliatuz garraio publikoa sustatzeko egin diren aurrerapenak aurkezteko.

http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=es&nuevaPag=&uid=u559cff7e_151852964b0__7ebb&aplicacion=wb021&id=&tabla=contenid

Gasteizko Herritarren Zientzia Sarea

2013an, Gasteizko Udalak Herritarren Zientzian Parte Hartzeko Sarea sortu zuen, Atariaren bitartez. Iraunkortasunerako hezkuntzarako tresna da hori, ezagutza eta prozedura zientifikoak herritar ororen eskura jartzeko xedez era aske, dibulgatibo eta hurbil batean, natur ingurunea babesten esku hartzerik izan dezaten. Hiru etapatan egituratzen da: parte-hartzaileen prestakuntza, egindako identifikazioen egiaztapena, eta boluntarioen arteko komunikazioa dinamizatzea. 2015ean, Sareak lau kontserbazio programa izan zituen (orkidea, odonatu, hegazti eta tximelena), eta hiru jarraipen programa (pika, enara azpizuri eta espezie arrotz inbaditzaileena). Horietan 74 pertsonak hartu zuten parte, oso heterogeneoak adin, sexu, prestakuntza eta motibazioari dagokienez. <http://vitoria-gasteiz.org/ciencia-ciudadana>

21 Eskola Agenda Mugikortasun aktiboa eta autonomia, eskola-bidean

Ikastetxeetara egiten diren joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko proiektua Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren baitan ari da garatzen, eta hauxe du abiapuntua: haurrek hiriko kaleetan segurtasunez eta autonomiaz mugitzeko duten eskubidea eta beharra ezagutzea, bai eta haurrek espazio publikoa erabili eta horretaz gozatzeko duten berreskuratzea ere.

Horren haritik, haurrek eskoletara egiten dituzten joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko lan egingo dute 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan Gasteizko 21 Eskola Agendan parte hartzen duten ikastetxeek, he-

lburuztat harturik espazio publikoan eta hiriaren eta haurren arteko harremanen buruzko oharmen kolektiboan esku hartzea, baita haurrei hurbilenean ingurunea deskubritzen eta autonomia mugatzen dieten oztopoak gainditzan lagunduko dien hezkuntza-ereduan ere.

2014-2015 ikasturtean, 22 ikastetxe hartu zuten parte ekimenean: ikastetxe-rako joan-etorriak aztertu eta ekintza planak landu zituzten, horietan bide aktiboak eta haurren autonomia sustatzeko. 2015-2016 ikasturtean, aldiz, zehaztutako ekintza planak abian jarriko dituzte. 2015eko irailaren 22an, 500 ikaslek ibilaldia egin zuten hirian barrena, udaletxeraino. Bertan Udaltzako egin zien harre-ra, eta adierazpen bat irakurri zuten: identifikatutako oztopoak kentzen eta ikastetxera modu aktiboak erabiliz joateko inguru egokia sortzen saiatzeko konpromisoa hartu zuten horren bitartez.

http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&idioma=es&uid=u1d852908_149ea85daae__7f0e

Ikastetxeetarako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko jardueretarako diru-laguntza deialdia


2014az geroztik, Gasteizko ikastetxeetan eskola-mugikortasun autonomo, aktibo, seguru eta iraungarriko proiektuak sustatzen ari da Udala. 2015-2016 ikasturterako, diru-laguntzetarako deialdia egin da Gasteizko ikastetxei eta ikasleen gurasoen elkarrekin laguntza ekonomikoa emateko, ikastetxeetarako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko jarduerak egin ditzaten. Gasteizko Udalaren Erregistroan aurkez daitezke eskabideak, 2016ko ekainaren 30era arte.

http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=es&aplicacion=wb021&tabla=contenido&uid=u52caa330_1513d10f78b__7f79

Etxe berdeak

2015ean, Gasteizko Udalak Etxe Berdeak ekimena abiarazi zuen, hau da, ekologikoagoak eta iraunkoragoak izan nahi zuten eta Gasteiz gero eta berdeagoa izaten lagundu nahi zuten 25 familiarentzako doako programa. Etxe Berdeak ekimena hiriko familiek jarrera ekologikoagoa izatea sustatu nahi du eta, horretarako, ur eta energia gutxiago kontsumitzea sustatuko eta erosketa etikoagoa eta ekologikoagoa egiten lagunduko du. Programak ekintza hauek barne hartzen ditu: etxeko kontsumoak aztertzeko auditoretza pertsonalizatua; aholkularitza pertsonalizatua urtebetez, zailentzarako argitzeko; gaikako sei lantegi (energia, hondakinak, lorezaintza eta baratzezaintza, ura, mugikortasuna eta garraioa, eta kontsumoa), eta etxeko fakturan aurrezteko aholku praktikoa eta errazak.

http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&idioma=es&uid=u37e39394_14b0ae9da3f__7fdb&alias




INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA



JASANGARRITASUNEN HELBURU OROKORRA:

- HIRITARREN OSASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATU ETA BABESTE
- INGURUMENA KALTETU GABE ENPLEGUA SUSTATUKO DUEN TOKIKO EKONOMIA SORTU ETA SEGURTATZEA
- KOMUNITATE ITEGRATZAILE ETA SOLIDARIOAK SEGURTATZEA
- BAKEA, JUSTIZIA, BERDINTASUNA, GARAPEN JASANGARRIA ETA KLIMAREN BABESAREN ALORRETAN DUGUN ERANTZUKIZUNA ONARTZEA



GIZARTE-ONGIZATEA

Gizarte jasangarri baten osagai garrantzitsu bat bere hiritarren ongizate orokorra da. Horrek bizi-baldintza onak izatea eskatzen du: etxebizitza seguru eta irisgarria, lanbide interesgarri eta gustukoa, kalitatezko ingurunea (bai naturala eta bai eraikitakoa) eta tokiko erabakiak planifikatu eta hartzeko prozesuetan benetan parte hartzeko aukera. Hiritarrek alderdi horiei buruz duten iritzia euren herriarekiko duten gogobetetasun-tasa orokorraren neurri garrantzitsua da, eta bezaraz, baita jasangarritasun lokalaren adierazle egokia ere.


30. Herritarren gogobetetzea tokiko komunitatearekin

Aspektu desberdinak kontuan hartuz (etxebizitza, zerbitzuak, irakaskuntza, segurtasuna...), euren hiriarekiko gogobeteta bizi diren gasteiztarren ehunekoa adierazten du ondorengo koadro honek.

Datu iturria: Udal Ekobarometroa, 2008. IHOBE (Eusko Jaurlaritza)

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: lau urtean behin



• Oso gogobeteta • Aski gogobeteta

GARAPENERAKO LANKIDETZA

Aberastasunaren banaketa desberdinari buruz kontzientziatzea eta jokabide solidarioagoak hartzea funtsezko prozesuak dira garapen jasangarriaren helburuak lortzeko.


Aalborg-eko Gutunak dioten bezala: “gune txiroak dira ingurumeneko arazo gehien dituztenak (zarata, trafikoaren kontaminazioa, aisiarako instalaziorik eza, etxebizitza ez-osasuntsuak, berdegunerik eza) eta, aldi berean, arazo horiek konpontze-ko ahalmen gutxien dituztenak. Aberastasunaren banaketa desberdina da jokabide jasanezinaren kausa eta zailago egiten du aldaketa.”

Garapenean laguntzeko nazioarteko lankidetzeta-jardueretan udalak duen inplikazio-maila adierazten dute aztertutako adierazleek.

31. Garapenerako nazioarteko lankidetzara bideratutako udal aurrekontuaren ehunekoak

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzeta Zerbitzua
Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero




32. Garapenerako nazioarteko lankidetzara bideratutako udal aurrekontuko per capita gastua

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzeta Zerbitzua

Joera desiragarria: gehitzea

Neurtze aldia: urtero



DEMOGRAFIA


Batez ere herrialde garatuenetako hiri-biztanleen artean ugalkortasun-tasa jaitsi eta bizi-iraupena handitu eginenez, herrialde horiek errealitate demografiko berriari aurre egin behar diote. Errealitate demografiko horrek eragin handia du asistentzia, lanbide eta ekonomia esparruetan, eta kolokan jartzen ditu, neurri handi batean, oreka demografiko egokia bermatu behar duten jasangarritasun-helburuak.

33. Mendekotasun demografikoko tasa


Gaur egun Gasteizen dagoen mendekotasun demografikoaren maila ebaluatze-ko, adierazleak biztanleria ez-aktiboa (16 urte baino gutxiagokoak eta 65 urte baino gehiagokoak) biztanleria aktiboarekin (16 urtetik 64ra duten lagunak) erlazio-nutzen ditu.

Datu iturria: Vitoria-Gasteizko Udaleko Informazioaren Teknologien Saila
Neurtze aldia: urtero

Mendekotasun tasa osoa



Mendekotasun tasa biztanle taldeka



POBREZIA ETA GIZARTEKO BAZTERKERIA

Gizarteko bazterkeria-mota ugariaren iturria da pobrezia. Gizarteak eskaintzen dituen zerbitzu askotatik kanpo geratzen dira pobreenak. Baldintzarik txarrenetan bizi diren askok ez dute baliabiderik kultur jardueretan parte hartzeko, kirolak praktikatzeko, euren ezaguerak gehitzeko edo gertakari garrantzitsuenekin harremanetan egoteko, zeinen inguruan bizitza sozialaren zatirik handiena antolatzen baita.


34. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten familien ehunekoa

Adierazle honek zera erakusten du, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta deiturikoa jasotzen duten familiek Gasteizen bizi diren familia guztiekiko duten pisua.

Kalkulu berria egin da, urte bakoitzaren abenduan Gasteizen DBE jasotzen zuten bizikidetzak unitateak kontuan hartuta

Datu iturria: 2010. eta 2011. urteetakoak: Gizarte Gaien eta Adinekoen Saila. 2012, 2013 eta 2014 urteetakoak: Lanbide.

Neurtze aldia: urtero



LAN-MERKATUA

Lana helburua eta bitartekoa da gizakiarentzat. Garrantzitsua da ez bakarrik ematen duen ongizate materialagatik, baita norbanakoari bere nortasunaren zentzua, gizartean duen postuaren kontzientzia eta gizartean integratuta egoteko sentimendua ematen dizkiolako ere. Beraz, lana funtsezkoa da bizi-kalitate duina lortzeko. Bai norberarentzat lan egiten bada edo beste norbaitentzat egiten bada, jana, arropak, etxebizitza edo horiek guztiak erosteko aukera ematen duen dirua ematen du lanak.


35. Langabezia-tasa¹

Adierazle honek langabezia dagoen biztanleria aktiboaren ehunekoa aztertzen du.

Datu iturria: EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea

Joera desiragarria: gutxitzea

Neurtze aldia: urtero



1- EUSTAT-en Jarduerarekiko Biztanleriaren Inkestatik ateratako datuak. Gasteizko udalerako datu espezifikorik ezean, Arabako Lurralde Historikoari buruzkoak dira. (2012ko oinarria) biztanleria berria birpasatuta ateratako datuak.

Adierazleak hobetzeko ekintzak eta jarduerak

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Larrialdietarako Udal Zerbitzuak.

2015eko irailean Salburuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua sortu zen. Hartara, 13 dira hiriko gizarte-etxeetan kokatutako oinarrizko gizarte zerbitzuak. Horiek, Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuarekin batera, herritarrengandik gertuen dagoen gizarte-zerbitzuen sare publikoa osatzen dute, Gasteizen bizi diren pertsonen autonomia eta gizarte-ongizatea lagundu eta faboratzeko helburuarekin. 2015ean, 13 zerbitzu horietatik, guztira 11.618 familiari eman zaie arreta, eta Gizarte Larrial-

dietarako Zerbitzutik, berriz, 2.294 familiari eman zaie arreta puntualagoa. Gizabankoei nahiz familiei arreta eskaintzeaz eta baliabide propioak aplikatzeaz gain, programazio komunitario zabala landu dute oinarrizko gizarte-zerbitzuek, eta 289 jarduera garatu, 1.674 pertsonaren partaidetzarekin. Alde batetik, partaidetza sustatu nahi da ekintza horien bitartez, hiriaren potentzial integratzailea optimizatuko duten egiturak sortu eta garatu daitezela faboratuz, eta, bestetik, maila indibidualagoan, kompetentzia soziala bultzatzen dute programa horiek, baliabide eta trebetasun pertsonalak areagotze aldera, hazkunde eta ongizate handiagoa lortzeko.

Adinekoak

Adineko pertsonari ematen zaien arreta hobetzeko helburu estrategikoaren baitan, programa komunitario bat lantzen hasia da Gizarte Politiken Saila, beste sail eta entitate batzuekin koordinaturik, bakarrik edo bakartuta dauden adineko pertsonak detektatu eta behar duten laguntza emate aldera.

Adinekoentzako zentro soziokulturalen sareak hazten jarraitzen du, eta, 2015eko maiatzean Lakua-Arriagako zentroa zabaldu zelarik, 15 dira dagoeneko hirian. Hiriko zona horretako adinekoen beharrei erantzuteko aukera ematen du zentro berri horrek, eta hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie: informazioa, kafetegia, ile-apaindegia, podologia, lantegi eta ikastaroak, eta infoteka.

Lehenengo aldiz, adinekoentzako zentro soziokulturalak zabalkunde-kanpaina bat egin dute, zentroak hirian ezagutzera emateko, eta kolektiboaren irudia hobetzen laguntzeko. Horretarako, zentroak aurkezteko liburuxka bat egin da, hiriko hainbat pertsonaren irudiekin. Bestalde, konexio informatikoa hobetu delarik, eta teknologia berrietara sarbidea eman, espazio moderno eta irisgarriak bihurtu dira zentroak. Esparru horretan, nabarmentzekoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologien alorreko ikastaro eta lantegiek izan duten eskaera.

Zentroek eskaintzen duten zerbitzuen kudeaketaren hobekuntzaren baitan, aipatzekoa da jantoki-zerbitzuak aldatu egin duela bertara sartzeko modua, zerbitzuaren premiarik handiena dutenei —autonomia-mugak dituztenei, bakarrik daudenei— lehenetsuna emateko. Aurrez aurre nahiz online eska daiteke zerbitzua. Orobat jarri dira martxan bi osasun-parke, Abetxukun eta Zaramagan.

Adinekoak beren ingurunean baldintza onetan irauten laguntzen dute animazio soziokulturalerako, mendekotasunaren prebentziorako eta autonomia sustatzeko zentroetan garatzen diren programek. Ikasturte honetan 192 lantegi eskaini dira —hezkuntza, arte plastikoak eta eskulangintza, harremanak, norberaren burua zaintzea.—, guztira 3.167 leku. Aparteko garrantzia dute komunitate-jarduerak eta bealunaldien arteko programak, zeinek hezkuntza-agendaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen alorreko hainbat ekintza hartzen baitituzte beren baitan. 2015ean 5.984 lagunek parte hartu zuten.

Batzordeen bitartez gauzatzen den partaidetzak arrakastatsua izaten jarraitzen du, emaitza harrigarriekin. 2015ean 1.200 jarduera antolatu zituzten 261 lagunek, eta 48.000 pertsonen parte hartu zuten horietan.

Familia zaintzaileei laguntzeko programak berrikuntzak ezartzen jarraitzen du, familien premia eta eskaerei erantzuteko. Horregatik, ekintza berriak abian jarri dira, hala nola familia zaintzaileei lehenetsuna ematea adinekoentzako zentro soziokulturalerako ikastaro eta lantegietan sartzeko orduan, zaintzaile eta zainduentzako baterako prestakuntza-jarduerak, zaintza-espazio partekatua, etxek etxeko prestakuntza-saioak eta beste.

Haurtzaroa eta nerabezaroa

Haur eta Nerabeentzako Tokiko Planaren baitan, babes berezia behar duten haurren alorreko koordinazio- eta lankidetzarako Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko protokoloa bukatu zen 2015ean. Eusko Jaurlaritzari Balora tresnaren ebaluazioan laguntzen jarraitu da, eta kontzilioz erantzunkidearen estratejiaren ingurukoak garatzen.

Haurren babesgabetasunaren arloan gizarte-eragileak prestatzeari dagokionez, 150 profesionalen prestakuntzan lan egin da. Prestakuntza-ekintzekin jarraitu da —aurrez aurre nahiz online—, eta hainbat gai jorratu: gurasotasun positiboa, erresilientzia, sexu-abusua eta abar. Hainbat jardunaldi egin dira horretarako, eta 500dik gora profesionalak parte hartu dute bertan, bai udal langileek, bai hirian haurrekin lan egiten duten beste sistema batzuetakoek.

Orobat eman zaie jarraipena EHUKo Psikologia Fakultatearekin lehendik lantzen ari ziren bi proiekturi: gurasotasun positiboa sustatzeko proiektuari eta guraso eta seme-alaben arteko indarkeriari buruzko proiektuari.

Azken urteotan bezala, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren urteurrena ospatzeko festa ospatu zen, eta orobat eman zitzaion jarraipena “Eta zuk, baduzu zer esanik?” proiektuari —Frantziako, Alemaniako eta Gasteizko 700dik gora haurrekin lan egin zen—. 2015-2016 ikasturtean, migratzaile eta errefuxiatuek egin beharreko ibilbidea jorratzen ari da “Eta zuk, baduzu zer esanik?” proiektu berria.

Haurren partaidetzarako Aktibatu programak haur eta nerabeen eskubideak eta haur eta gazteen partaidetza sustatzen jarraitu du, eta hainbat zabalkunde- eta sentsibilizazio-jarduera bideratzen. Sentsibilizazio-lanen artean, orobat dira aipatzekoak gurasotasun positiboaren proiektua eta familia-dibertsitateari buruzko sentsibilizazio-proiektua.

Azkenik, aipatzekoa da lehen mailako prebentzioan gurasoekin eta seme-alabekin lan egiten jarraitzen dela, hainbat programaren bitartez, hala nola Senidegune programaren, Prólogo lantegien, emozio-lantegien eta jardunbide egokien programaren bitartez.

Genero-indarkeria

2016ko urtarrilean “Onartuz” udal zerbitzua sortu zen, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeei arreta integrala eta diziplina anitzekoa emateko. Emakume horiek eta beren seme-alabek, baita beren kargura dauden pertsonak ere, harreara eta laguntza jasoko dute, egoeraz ohartu eta erabakiak hartzerik izan dezaten; gizarte-zerbitzuen funtzionamendu-protokolo berria eta biktimei laguntza intentsiboa emango dion “Onarpen” talde berezia sortu dira horretarako. Talde horren lanak hobekuntza nabarmena dakar genero-indarkeriaren arloko kasuak antzeman eta loturak hausteko eta indarbertzeko prozesuetan laguntzeko garaian.

Gizarteratzea eta laneratzea

Gizarteratze-ibilbideei dagokienez, azpimarratzekoak dira Gizarteratu izenpean eskaini ziren gizarteratzea lortzeko lantegi eta ikastaroak, eguneroko bizimodua eragozpenik gabe garatzeko sozialki eta pertsonalki nolabaiteko gaitasuna lortu beharrean diren pertsonen zuzenduak, bazterketa-prozesuan erortzeko arriskuari aurre egin ahal diezaioten. Gizarteratu programak eskaintzen dituen lantegi eta ikastaroak hainbat jarduera-mailatan antolatzen dira, xede diren pertsonen pro-

filaren arabera. Programaren ohiko bost mailez gain, hiru ibilbide berri gehitu dira. Guztira, 38 lantegi egin dira, eta 660 lagunek parte hartu dute bertan.

2015ean, Harrera Sozialerako Udal Zentroak 30. urteurrena ospatu zuen, eta baliabide horrek izan duen bilakaera ezagutarazteko baliatu zen aukera, baita etxebizitzarik gabe dauden pertsonen egoeraren inguruan sentsibilizatzeko ere, eta profesionalen jardunaren gaineko gogoeta- eta eztabaida-espazio bat ahalbidetu zen.

80eko urteetan Estatu Batuetan sortutako "Housing first" ereduaren oinarriturik, bizitegi-esklusio egoera larrian daudenei arreta emateko "Hurbil etxebizitzak" izeneko esperientziari ekin zaio Gizarte Politiken Saileretik. Problematika ugari harrapatuta dauden pertsonen etxebizitza bat lagatzea da eredu horren abiapuntu, eta lanplanak beren zirkunstantzia eta erritmo partikularretara egokitzea, lantalde profesional baten laguntzaz.

Enplegurako prestakuntza

E-learning prestakuntza eskaintza: azken ekitaldietan, aurrez aurrekoa ez den Internet bidezko prestakuntza horrek leku sendoa hartu du Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren egituraren eta prestakuntza-planetan. Enplegurako prestakuntzaren aukerak handitzea du helburutzat, teknologia berriak baliatuz eta kalitateko ikastaroen katalogo zabala eta eguneratua eskainiz. Bi modalitate daude: i) e-learning – Internet: edonondik (etxetik, lanetik...) egin daitezke ikastaroak, orduz mugarik gabe; ii) e-learning – CETIC: CETICeko autoikaskuntza gelan dauden ekipo informatikoa erabiliz, zentroko egutegiaren eta orduz egitearen barruan. 2015ean, 716 pertsonak 965 ikastaro egin zituzten guztira.

Etengabeko lanbide prestakuntza espezializatua: prestakuntza ekintza horien bidez pertsonen produkzio-baldintza berrietara eta aldaketa teknikoetara egokitze-ko aukera ematen zaie, beren kualifikazio maila hobetu eta mantentzen dituzten eta lan merkatuan lehiakorragoak izan daitezkeen. Gehien bat langabeentzat badira ere, parte-hartzaileek lehendik zuten esperientziarekin edo prestakuntza nahiz profil profesionalarekin lotutako birziklatzea da. Ikastaro laburrak dira, gehienez 100 ordu irauten dutenak. Ekitaldi honetan, ikastaro asko IKTekin eta berrikuntzarekin lotutakoak izan dira. Eraikuntzari dagokionez, profesionalak eraikuntza iraunkorraren eta energia berriztagarrien alorrean sentsibilizatzeko jardunaldi teknikoak egitera bideratu dira ahaletarako. 2015an 19 ikastaro egin ziren, eta 267 lagunek parte hartu zuten.

Lanerako prestakuntza: lan-munduan txertatzeko aukerak handitzeko ikastaroak, langabeentzat daudenentzat. Lanbide profil osoak —ahal den neurrian lan merkatuaren beharrei erantzuteko modukoak— bereganatzeko nahikoa prestakuntza eskaintzen diete ikasleei. Enpresetan praktikak egiteko eta profesionaltasun ziurtagiriak lortzeko aukera ematen du. 2015ean 423 pertsonak 30 prestakuntza-programatan parte hartu zuten, alor hauetan: industria eta automozioa, informazio eta komunikazio teknologia, pertsona eta komunitaterako zerbitzuak, ostalaritza eta merkataritza, birgaikuntza eta eraikuntza iraunkorra, IKTak, berrikuntza eta enplegu berdea.

Prestakuntza eta enplegu programak

2015ean ekintza hauek egin ziren:

- Lan orientabideak, bereziki lan-merkatuan sartzeko edo berriro sartzeko aukerak handitzea ahalbidetzen duten enplegarritasun-faktoreak aintzat hartuz: 2015ean 1.613 pertsonari eman zitzairen arreta, banakako eta taldeko orientazio ekintzen bidez eta asistentzia teknikoa emanez, Enplegu Zentroan —norberak enplegua bilatzeko kontsultak egiteko tresnak eskaintzen ditu, baliabide material eta teknikoak, eta orientatzaile baten laguntza—. Enpresetan 36 praktika egin dira orientazio ekintza horiekin lotuta.
- 2015eko Enplegu Foroa, Arabako campusekiko lankidetzan antolatua: esperientzien trukea, ikastaroak, lantegiak, mintegiak, hirian hedatzea aurreikusi duten enpresen aurkezpenak, erakundeek lan-merkatuarekin eta enplegu-sorkuntzarekin lotuta dituzten baliabideen aurkezpenak. Bertaratuen arteko 60 pertsonak hartu zuten parte enplegarritasuna hobetzeko lantegietan.
- “Green Jobs” enplegu berdeen proiektua: enplegu berdea sortzea hiri hondakin solido berrerabilgarririk sor ez dadin, edo gutxiago sor dadin, eta lursailak garbitzen; 12 parte-hartzaile izan zituen programak, eta urtebeteko kontratazioak egin ziren.
- Gasteizko nekazaritza eremuetako natura eta kultura ingurunea paisaiaren aldetik egokitzeko programa: enplegu eta prestakuntza programa, 6 hilabetekoa, enplegu-zentro berezi batek kudeatua eta baztertuak izateko arriskuan dauden 9 pertsonari zuzendua.

Gasteizko 2015eko Eskualdeko Enplegu Plana: Lanbidek kofinantzatutako proiektuak, esku hartzeko ildo ezberdinekin. Guztira 26 enplegu programa egin ziren, eta 78 pertsona kontratatu, arlo hauetan: iraunkortasuna; natur ondarea, paisaia, kultur ondarea eta ondare historikoa berreskuratzea; eraikinen birgaitze energetikoa; gai sozialak; I+G+B, eta energia-eraginkortasuna, besteak beste. Bestetik, Gasteizko enpresei kontratatzeko 178 laguntza eman zitzairen.



INGURUMEN KONTSEILU SEKTORIALA

Ingurumen Kontseilu Sektoriala herritarrek Vitoria-Gasteizko Tokiko Agenda 21aren parte hartzeko organoa da. 2000n sortu zen, Agendaren prozesua babesteko akordio politikoari erantzuteko. Udalaren kontsulta organoa izateko sortu zen, eta hartan, herritarrak daude ordezkatuta, udalerriko gizarte eta erakunde kolektibo nagusien bidez.

Partaidetza organo horren funtzioak, osaera eta funtzionamendu arauak Funtzionamenduko Barne Araudian daude jasota. Barne araudi hori 2004ko abenduaren 2ko ohiz kanpoko bileran onartu zen.

Gaur egun, ia 40 kolektibok hartzen dute parte (auzo elkarteak, talde ekologistak, sindikatuak, unibertsitatea, erakundeak...) eztabaida foro horretan. Haren helburuak hauek dira: Vitoria-Gasteizko udalerriko natura eta hiri ingurumena kontserbatzea, defendatzea eta hobetzea. Urte hauetan, zenbait lan talde sortu dira Kontseiluaren barruan, gai zehatzak aztertzeko:

Uraren taldea

Hondakinen taldea

Parke eta lorategien taldea

Zadorra ibaiaren eta haren inguruko eremuaren taldea

Animalien babeserako taldea

OSOKO BILERAK

Bilera kopurua: 1

Landutako gai nagusiak

- Landutako gai nagusiak:
- 2015eko aurrekontuak
- Aurrerapenak, Gasteizko Biodibertsitatearen Estrategian
- Herritarren Partaidetzaren Planaren egoera
- Kontseiluak agintaldian zehar ingurumen-politiketan izan duen eraginaren diagnostikoa

